
**EMAKUMEEN ETA
GIZONEN EGOERA,**

LAN-ISTRIPU TASARI

ETA LAN-GAIXOTASUNEI

DAGOKIENEZ



OSALAN

Laneko Segurtasun eta
Osasunerako Euskal Erakundea
Instituto Vasco de
Seguridad y Salud Laborales



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

AURKIBIDEA

SARRERA	4
METODOLOGIA	6
1. TESTUINGURUARI BURUZKO DATUAK: EMAKUMEEN ETA GIZONEN LAN-BALDINTZAK	8
1.1. ESPARRU PRODUKTIBOA.....	9
1.2. ESPARRU ERREPRODUKTIBOA	15
2. ARRISKU FAKTOREAK LANAREN ESPARRUAN	18
2.1. LANAREN ANTOLAMENDUAREN ONDORIOZKO ARRISKU FAKTOREAK (PSIKOSOZIALAK)	21
2.2. LANAREN KARGA FISIKOEN ETA ZENTZUMENEZKO KARGAREN ONDORIOZKO ARRISKU FAKTOREAK (ARRISKU ERGONOMIKOAK ETA FISIKOAK)	25
2.3. HAINBAT LAN-BALDINTZEN ONDORIOZKO ARRISKU FAKTOREAK (SEGURTASUNEN ARRISKUAK ETA ARRISKU HIGIENIKO-BIOLOGIKOAK).....	28
2.4. PREBENTZIO JARDUERAK	29
3. EMAKUMEEN ETA GIZONEN ISTRIPU TASA LANEAN	34
3.1. ZER HARTZEN DA LAN-ISTRIPUTZAT?	35
3.2. LANALDIAN GERTATZEN DIREN LAN-ISTRIPUAK	36
3.3. ISTRIPUAK "IN ITINERE"	44
3.4. ISTRIPU EZ-TRAUMATIKOAK	48
4. EMAKUMEZKOEN ETA GIZONEZKOEN LAN-GAIXOTASUNAK	50
4.1. ZER HARTZEN DA LAN-GAIXOTASUNTZAT ETA ZER PERTSONA HARTZEN DIRA KONTUAN?	51
4.2. LAN-GAIXOTASUNEN DATUAK EAEN (2015).....	52
4.3. LAN-GAIXOTASUNEN SUMOEN DATUAK EAEN 2015EAN.....	61
ONDORIOAK ETA EZTABAIDA	64
ERANSKINA. TAULAK ETA GRAFIKOAK	72

Emakumeen eta Gizonen egoera, lan-istripu tasari eta lan-gaixotasunei dagokienez

SARRERA



SARRERA

Txosten honen helburua da **generoaren ikuspegitik aztertzea zein diren lan-baldintzak eta lanaren ondoriozko kalteak emakumeengan eta gizonengan**. Horretarako, ezinbestekoa da aztertzea lan merkatuan abiapuntuko zer baldintza bereizgarri dituzten emakumeek eta zein gizonezkoek.

Horregatik bildu dira lehenengo atalean emakumeen eta gizonen lan-baldintzei buruzko **testuinguruari dagozkion datuak**. Alde batetik, **eremu produktiboari** dagozkionak aztertzen dira, eta bertan ikusten dira, hain zuzen ere, desberdintasun nagusiak lan merkatuan dagoen bereizketa horizontalari buruz, hau da, genero arrailak lanaldi eta kontratu moten artean. **Eremu erreproduktiboari** buruzko hainbat adierazle ere landu dira, baita lan-karga orokorrari eta etxeko lanaren banaketari dagokionez dauden aldeak ere.

Bigarren atalean, lan esparruko arrisku faktoreak biltzen dira. Horretarako, lan-baldintzen ondoriozko zenbait adierazle eta horiek emakumeengan eta gizonengan duten eragina aztertzen dira. Aintzat hartutako adierazleak lan-baldintzetan dauden arrisku psikosozialei, ergonomikoei, segurtasunaren alorrekoei eta higieniko-biologikoei dagozkie. Horrez gainera, prebentzio jardueri buruzko azterketa bat erantsi da, baita beste hainbat datu ere, hala nola kontsulta eta parte-hartze mekanismoak, prebentzioari buruz jasotako informazio maila, eta prebentzioaren kudeaketaren barruan sartuta dauden prebentzio jardueretan izandako parte-hartze maila.

Hirugarren atalak **lan-istripuei dagokienez** emakumeen eta gizonen artean dauden aldean azterketan jartzen du arreta. Lanaldian gertatutako istripuak aztertu dira, baita “in itinere” gertatuak ere. Baja traumatikoak eragin dituzten istripuetara mugatu da azterketa, baina ez traumatikotzat jo direnei buruzko ohar bat ere erantsi da.

Laugarren atalean, **lan-gaixotasunekin** zerikusia duten datuak eta emakumeengan eta gizonengan duten eragina landu dira, jarduera sektoreak, gaixotasun taldeak, arrisku taldeak, etab. kontuan hartuta. Bestalde, **lan-gaixotasunen susmoen** banaketa azaltzen da, lan mota eta jarduera sektorea kontuan hartuta.

Azkenik, emakumeen eta gizonen lan-baldintzei eta istripu tasari eta lan-gaixotasunei buruzko **ondorio** aipagarrienak jasotzen dira txostenaren amaierako atalean.

Emakumeen eta Gizonen egoera, lan-istripu tasari eta lan-gaixotasunei dagokienez

METODOLOGIA

METODOLOGIA

Txosten hau egiteko honako informazio iturri hauek erabili dira:

- Lan-istripuen parteak telematikoki aurkezteko eta tramitatzeke IGATT aplikazioaren datu basea, Eusko Jaurlaritzaren Justizia, Enplegu eta Gizarte Segurantza Kontseilariak 2003ko azaroaren 20ko Aginduaren bitartez onartua. Azaroaren 19ko TAS/2926/2002 Aginduak ezarritako lan-istripuen parte eredu berrien arabera tramitatutako datuak biltzen dira bertan.
 - Lan-gaixotasunen ondoriozko parteen jakinarazpen telematikorako CEPROSS aplikazioak sortutako fitxategi estatistikoa (Gizarte Segurantzaren Antolamendurako Zuzendaritza Nagusiak, Lan eta Immigrazio Ministerioa).
 - “Zifrak 2015 Emakumeak eta Gizonak Euskadin”, EMAKUNDE – Emakumearen Euskal Erakundeak osatua.
 - Eusko Jaurlaritzaren Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailaren “Lan-baldintzen inkesta” (ECT-2013).
 - EUSTATen (Euskal Estatistika Erakundea) datu baseak.
 - INEren datu baseak (Estatistikako Institutu Nazionala).
-



TESTUINGURUARI BURUZKO DATUAK: EMAKUMEEN ETA GIZONEN LAN-BALDINTZAK

1


1

TESTUINGURUARI BURUZKO DATUAK: EMAKUMEEN ETA GIZONEN LAN-BALDINTZAK

1.1. Esparru produktiboa


Gizarte Segurantzako afiliazioari dagokionez emakumeen eta gizonen artean dagoen aldea murriztu egin da 2009-2015 urteen bitartean. 2009. urtean, 92.831 gizon gehiago zeuden afiliatuta; 2015. urtean, berriz, 17.887 gizon gehiago zeuden. Tarte horretan emakumeen artean izandako afiliazio igoeraren parte bat (30.000 gutxi gorabehera) Etxeko Langileen Sistemaren 2012ko (2013an izan zituen ondorio estatistikoak) erregulazio berriaren ondorioa da.

1. grafikoa - Gizarte Segurantzako afiliazioa istripuen estaldurarekin, 2009-2013-2015



Iturria: Lan-istripuen txostena, generoaren ikuspegitik, 2015

2. grafikoa - Langileen banaketa sektoreen arabera (2015)




Iturria: Lan-istripuen txostena, generoaren ikuspegitik, 2015

Jarduera sektoreen araberako azterketa bat eginez gero, jende gehien zerbitzuen sektorean diharduela ikusiko dugu, bai emakumeei bai gizonei dagokienez. Horrez gainera, sektore horixe da langile gehienak emakumezkoak dituen sektore bakarra (gizonezkoak baino 100.000 gehiago dira emakumeak). Beste hiru sektoreetan, gizonezko afiliatuak dira gehiengoak.

Edonola ere, emakumezko eta gizonezko langileen jardueraren araberako banaketak (JESN banaketa) oso ongi erakusten du lan merkatuaren bereizketa horizontala. Era horretara, gizonezkoak gehiengoak dira lehen sektoreko, industriako eta eraikuntzako jarduera guztietan, baita zerbitzuen sektoreko H-Garraioa eta biltegiatzea, J-Informazioa eta komunikazioak jardueretan ere. Emakumeak, aldiz, gehiago dira beste jarduera hauetan: I-Ostalaritza, K-Finantza eta aseguru jarduerak, L-Higiezinaren jarduerak, N-Jarduera administratiboak eta zerbitzu osagarriak, P-Hezkuntza, Q-Osasun arloko jarduerak eta gizarte zerbitzuak, S-Beste zerbitzu batzuk eta T-Etxeko jarduerak, etxeko langileen enplegatzaile gisa.

Emakumezko eta gizonezko langile kopuruari dagokionez oreka handien duten jarduerak honakoak dira: M-Jarduera profesionalak, zientifikoak eta teknikoak, 19.099 emakume eta 19.317 gizonekin; R-Jarduera artistikoak, aisialdikoak eta denbora pasakoak, 5.357 emakume eta 6.051 gizonekin, eta O-Administrazio publikoa eta defentsa, eta derrigorrezko gizarte segurantzak, 21.133 emakume eta 24.821 gizonekin.

3. grafikoa - Emakume eta gizon langileen banaketa, enpresaren jardueraren arabera (JESN banaketa), 2015



Iturria: Lan-istripuen txostena generoaren ikuspegitik, 2015

Hurrengo taulan ikusten denez, 2013. eta 2015. urteen bitartean enpleguek behera egin dute, bai emakumeen kasuan bai gizonen kasuan, lehen sektoreko jardueretan, industrian eta eraikuntzan, eta zerbitzuen sektorean, berriz, gora egin dute, bai emakumezkoen artean bai gizonezkoen artean.

Azpimarratu beharra dago, halaber, urte bitarte horretan aldatu egin dela etxeko langileen taldearen erregulazioa.

1 taula - Emakumezko eta gizonezko langile kopuruaren aldaketa, enpresa jardueraren arabera (JESN banaketa), 2009-2015.

AFILIAZIOA, 2009-2015	Gizonak	Emakumeak
A- NEKAZARITZA, ABELTZAINITZA, BASOZAINITZA ETA ARRANTZA	%-14	%-30
B- ATERATZE INDUSTRIAK	%-35	%-24
C- MANUFATURA INDUSTRIA	%-17	%-12
D- ENERGIA ELEKTRIKOAREN, GASAREN, LURRUNAREN ETA AIRE EGOKITUAREN HORNIDURA	%33	%-20
E- URAREN HORNIDURA, SANEAMENDU JARDUERAK	%1	%-11
F- ERAIKUNTZA	%-45	%-35
G- HANDIZKAKO ETA TXIKIZKAKO MERKATARITZA	%-3	%-1
H- GARRAIOA ETA BILTEGIRATZEA	%-7	%-7
I- OSTALARITZA	%36	%7
J- INFORMAZIOA ETA KOMUNIKAZIOAK	%-9	%-12
K- FINANTZA ETA ASEGURU JARDUERAK	%-27	%-8
L- HIGIEZINETAKO JARDUERAK	%20	%12
M- JARDUERA PROFESIONALAK, ZIENTIFIKOAK ETA TEKNIKOAK	%6	%0
N- ADMINISTRAZIO ETA ZERBITZU JARDUERAK	%4	%-1
O- ADMINISTRAZIO PUBLIKOA ETA DEFENTSA; SEGURTASUNA	%-4	%-1
P- HEZKUNTZA	%12	%14
Q- OSASUN ETA GIZARTE ZERBITZUETAKO JARDUERAK	%9	%11
R- JARDUERA ARTISTIKOAK, AISIALDIKOAK	%20	%9
S- BESTE ZERBITZU BATZUK	%13	%4
T- ETXEETAKO JARDUERAK, ETXEKO LANGILEEN ENPLEGATZAILE GISA	%176	%6776
U- ERAKUNDEEN ETA ORGANISMOEN JARDUERAK	%55	%49

Iturria: Lan-istripuen txostena generoaren ikuspegitik, 2015

Ondoren, emakumezkoen eta gizonezkoen afiliazio handien duten jarduerak agertzen dira. Horrez gainera, zer sektorekoak diren zehazten da (IND-Industria, KON-Konstrukzioa, ZER-Zerbitzuak). Laranja kolorez nabarmenduta daudenak komunak dira, baina, ikusten denez, ez daude kokaleku berean "ranking-aren" barruan.

2 taula - Gizonezko langileak gehiengoa diren 10 jarduera (JESNren arabera, enpresaren 2 digitura), 2015

Gizonak			
1	IND	Metalezko produktuak egitea, makinak eta ekipoak izan ezik	29.587
2	ZER	Administrazio Publikoa eta defentsa; Nahitaezko Gizarte Segurantzza	24.821
3	ZER	Handizkako merkataritza eta merkataritzako bitartekariak, ibilgailu motordunak eta motozikletak izan ezik	21.698
4	KON	Eraikuntza espezializatuko jarduerak	18.786
5	ZER	Hezkuntza	16.997
6	IND	Metalurgia; burdinazko, altzairuzko eta ferroaleazioko produktuak egitea	15.307
7	ZER	Txikizkako merkataritza, ibilgailu motordunak eta motozikletak izan ezik	15.228
8	ZER	Janarien eta edarien zerbitzuak	15.166
9	ZER	Lehorreko garraioa eta hodi bidezkoa	15.084
10	IND	Beste atal batzuetan ez dauden makinak eta ekipoen fabrikazioa	12.752

3 taula - Emakumezko langileak gehiengoa diren 10 jarduera (JESNren arabera, enpresaren 2 digitura), 2015

Emakumeak			
1	ZER	Hezkuntza	39.687
2	ZER	Osasun alorreko jarduerak	39.033
3	ZER	Txikizkako merkataritza, ibilgailu motordunak eta motozikletak izan ezik	38.446
4	ZER	Etxeetako jarduerak, etxeko langileen enplegatzaile gisa	32.225
5	ZER	Janarien eta edarien zerbitzuak	25.261
6	ZER	Administrazio Publikoa eta defentsa; Nahitaezko Gizarte Segurantzza	21.133
7	ZER	Eraikinetarako zerbitzuak eta lorezaintzako jarduerak	20.722
8	ZER	Laguntza egoitza establezimenduetan	12.115
9	ZER	Gizarte zerbitzuko jarduerak ostaturik gabe	11.788
10	ZER	Handizkako merkataritza eta merkataritzako bitartekariak, motordun ibilgailuak eta motozikletak izan ezik	9.957


Beste alde batetik, emakumeen eta gizonen lan-baldintzen arteko desberdintasunak argi erakusten duten bi adierazleak honakoak dira: biztanleria okupatuaren lan kontratu mota eta lanaldia.

EUSTATEk biztanleriari buruzko bere Datu Basean jarduerari dagokionez eskaintzen dituen datuak aztertzean berehala ikusten da gaur egun lan merkatuan dauden kontratu ezegonkorrenak emakumezkoek dituztela. Kontraturik gabeko taldearen % 73 emakumezkoak dira, hain zuzen ere. Gertaera horrek lotura izan dezake bi egoera hauek: alde batetik, emakumeek zerbitzuen sektorean parte-hartze handia edukitzea, eta, beste alde batetik, gaur egun lan-baldintzak segurtasun gutxiagokoak eta ezegonkortasun handiagokoak izatea.

Aldi baterako kontratua duten herritarrei dagokienez, datuek adierazten dute emakumeen ehunekoa gizonazkoena baino handiagoa dela, 8 ehunekotan (% 54 eta % 46 hurrenez hurren). Horrez gainera, azken hamar urteetan izan den bilakaera aztertuz gero, aldi baterako kontratua duten emakumeen ehunekoa 7 puntu handitu dela ikusten da.

Lan kontratu mugagabea duten emakumeen ehunekoa gizonazkoena baino txikiagoa da. 4,6 puntu portzentualeko aldea dago (% 47,7 eta % 52,3 aurrez aurre). Egia da, hala ere, 2004. urteko datuekin konparatuz gero, hobekuntza ikusten dela. Izan ere, urte hartan, kontratu mugagabea zuten landunen % 38,4 baino ez ziren emakumeak; 2014. urtean, aldiz, ehuneko hori % 47,7ra iritsi da.

4 grafikoa - 16 urteko eta gehiagoko landun soldatapekoak, EAEn, kontratuaren arabera, 2014



Iturria: EUSTAT. Biztanleria jardueraren arabera sailkatzeko inkesta

Emakumeen eta gizonen arteko desoreka argi ikusten da lanaldi motari dagokionez. 2014. urtean, lanaldi partzialeko biztanleriaren % 80 baino gehiago emakumeak ziren; eta 2006. urteaz geroztik errepikatzen da gertaera hori.

4 taula- Landunak, lanaldiaren eta sexuaren arabera. EAE. 2006-2014

URTEAK	LANALDI OSOA			LANALDI PARTZIALA		
	Guztira	%E	%G	Guztira	%E	%G
2006	858.300	36,0	64,0	135.200	83,1	16,9
2008	875.000	37,2	62,7	135.000	83,1	16,9
2010	826.200	38,9	61,1	135.000	81,5	18,5
2012	758.800	39,7	60,3	144.000	81,3	18,7
2014	708.800	39,4	60,6	165.700	83,2	16,8

Iturria: INE. Biztanleria aktiboari buruzko galdetegia

1.2. Esparru erreproduktiboa

Lanaren ondoriozko kalteak, hau da, istripuen eta lan-gaixotasunen ondoriozko kalteak generoaren ikuspegitik aztertzeke, ezinbestekoa da kontuan hartzea zer baldintzatan egiten duten lan erreproduktiboa emakumeek eta gizonak. Alde handiak daude emakumeek eta gizonak lan mota horiei eskaintzen dieten denboraren banaketari dagokionez. Eta alderdi hori oso kontuan hartu beharrekoa da laneko osasunaren alorrean.

Emakundek egindako "Euskadiko emakumeen eta gizonen egoerari buruzko zifrak" txostenean biztanleria jardueraren arabera sailkatzeke 2014ko galdetegiko datuak jasotzen dira, eta horietan baieztatzen da gaur egun oraindik ere etxeko lanak emakumeek egin ohi dituztela. Etxeko lanak egin ohi dituzten biztanle aktibo guztiak kontuan hartuta, % 55,2 emakumezkoak dira, eta ehuneko hori askoz ere handiagoa da biztanleria ez-aktiboaren kasuan (% 70,2). "Aldizkakotasuna" edo "gabezia" zuzenean daude lotuta gizonetzkoekin, nola aktiboekin hala ez aktiboekin.

5 taula - 16 urteko eta gehiagoko biztanleria EAEn, etxeko lanak zenbateko maiztasunez egiten diren kontuan hartuta, sexuaren eta jarduerarekiko harremanaren arabera. EAE. 2014

		GUZTIRA	EMAKUMEAK		GIZONAK	
			(Abs.)	%h	(Abs.)	%h
Biztanleria aktiboa	Normalean	769.400	424.500	55,2	344.900	44,8
	Aldizka, batzuetan bai eta beste batzuetan ez	203.100	54.000	26,6	149.100	73,4
	Oso gutxitan	41.100	7.100	17,3	34.000	82,9
	Inoiz ez	34.800	6.000	17,2	28.800	82,8
Biztanleria ez-aktiboa	Normalean	479.500	336.300	70,2	143.200	29,9
	Aldizka, batzuetan bai eta beste batzuetan ez	166.300	64.400	38,7	101.900	61,3
	Oso gutxitan	54.400	20.000	36,8	34.400	63,2
	Inoiz ez	82.500	34.300	41,6	48.200	58,4

Iturria: EUSTAT. Biztanleria jardueraren arabera sailkatzeko inkesta

Illo horretatik, lana, familia eta norberaren bizitza bateratzeari buruzko EUSTATen azken inkestak (2013) EAEko biztanleria landunari buruzko informazioa eskaintzen du, etxeko lanei lotutako jarduerari eskaintzen zaien denbora kontuan hartuta: emakumeek gizonek baino ordu gehiago ematen dituzte etxeko lanak egiten, batez beste 9,4 ordu; gizonezkoek, aldiz, 6 ordu eskaintzen dizkiete. Alde horiek are handiagoak dira adingabeko seme-alaben zaintzari dagokionez (1,8 ordu); etxeko lanei eta mendekotasunak dituzten pertsonen zaintzari dagokionez alde horiek txikiagoak dira kasu bakoitzean (0,8 ordu).

6 taula - Biztanle landunak, etxeko lanei lotutako jarduerari egunero eskaintzen dizkieten orduen arabera. EAE-2013.

	EMAKUMEAK	GIZONAK	G-E aldea
Etxeko lanak	2,2	1,4	-0,8
Seme-alaba adingabeen zaintza	4,9	3,1	-1,8
Mendekotasuna duten pertsonen zaintzak	2,3	1,5	-0,8
GUZTIRA	9,4	6	-3,4

Fuente: EUSTAT. Encuesta sobre la conciliación de la vida laboral, familiar y personal (CVL)

Denbora aurrekontuei buruzko inkestaren azken adierazleetan (2013. urtea) nabarmenak dira emakumeen eta gizonen artean dauden aldeak denboraren erabilerari dagokionez, bai beren gizarte ohiturak bai eguneroko bizitzako jarduerak kontuan hartuta. Emakumeek gizonak baino ordu gutxiago baliatzen dituzte "lanaren eta prestakuntzaren" alorreko jardueretan, "aisia pasiboan" (irakurketa, telebista, ikuskizunak, jokoak eta zaletasun artistikoak) eta "aisia aktiboan eta kirolean" (Internet, ordenagailua, irteerak eta kirol jarduerak). Oraindik ere emakumeek gizonak baino askoz denbora gehiago eskaintzen diete etxeko lanei. Emakumeek batez beste gizonezkoek baino bi ordu gehiago eskaintzen dizkiete etxeko jardueri.

Beste alde batetik, ez da ia alde nabarmenik ikusten nork bere burua zaintzeko eta mantenimendurako jardueri dagokienez (premia fisiologikoak), harremanen arloko bizitzari eta hainbat helburutarako desplazamenduen inguruko jardueri dagokienez (lana, ikasketak eta aisia).

7 taula - Jarduera motaren arabera batez besteko denbora (oo:mm), sexuaren arabera. EAE-2013.

	2013		
	EMAKUMEAK	GIZONAK	E-G ald.
Premia fisiologikoak	11:59	11:53	-0:06
Lana eta prestakuntza	2:22	3:16	+0,94
Gizarte harremanak	0:44	0:45	+0,01
Aisia aktiboa eta kirolak	1:11	1:47	+0,36
Aisia pasiboa	2:52	3:05	+0,53
Joan-etorriak	1:08	1:18	+0,10
Etxeko lanak	3:08	1:37	-1,71
Etxeko pertsonen zaintza	0:36	0:21	-0,15

Iturria: EUSTAT. Denbora aurrekontuen inkesta, 1993-2013. Sintesi dokumentua.

ARRISKU FAKTOREAK LANAREN ESPARRUAN

2

2

ARRISKU FAKTOREAK LANAREN ESPARRUAN

Laneko baldintzen ondoriozko hainbat adierazle aztertzen dira atal honetan, baita adierazle horiek emakumeengan eta gizonengan duten eragina ere. Aztertutako adierazleek lan-baldintzen arabera arrisku faktore psikosozialei, ergonomikoei, segurtasunaren alorrekoiei edo higieniko-biologikoei egiten diete erreferentzia.

Eusko Jaurlaritzaren Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailak EAEko soldatapekoen eta antzekoen lan-baldintzak aztertzeke egin zuen *Laneko Baldintzen Inkesta (LBI)* 2013 izeneko inkestan jasotako datuetan oinarritzen da honako azterketa hau.

Aزتتutako adierazle askotan, sexuaz gainera, soldatapekoek eta antzekoek egindako lanaren edukia hartzen da kontuan. LBI izeneko inkestan erabilitako aldagai horrek, egindako lanaz gainera, erakundearen barruan norberak izandako posizio hierarkikoa hartzen du kontuan, baita zer sektoretan lan egiten den ere, hau da, industrian edo hirugarren sektorean. Aldagai horren arabera definitutako taldeak honako hauek dira:

Kodea	LANAREN DESKRIBAPENA ¹
T1	Zuzendaritzako zereginak (kategoria altua eta ertaina)
T2	Hezkuntza/irakaskuntzako zereginak (unibertsitate mailako titulua)

¹(1): Lanbide kategoria hiru taldetan banatu da: Altua (goi mailako tituluduna, erdi mailako tituluduna, administrazio burua edo tailerreko burua), ertaina (ofizial administraria, 1. edo 2. mailako industria ofiziala edo titulaziorik gabeko laguntzailea) eta baxua (administrari laguntzailea, 3. mailako industria ofiziala edo espezialista, peoia, mendeko langilea).

T3	Osasuna eta gorputz ongizatea (unibertsitate mailako titulua)
T4	Bulego lana (kategoria altua eta ertaina) ²
T5	Pertsonekiko harremana dakarten beste lan batzuk/merkataritza lanak (kategoria altua edo ertaina) ³
T6	Industria ekoizpeneko zereginak (kategoria altua edo ertaina) ⁴
T7	Zerbitzuetako/hirugarren sektoreko ekoizpen zereginak (kategoria altua edo ertaina) ⁴
T8	Bulegoko lana (kategoria baxua) ²
T9	Pertsonekiko harremana dakarren lana/merkataritza lanak (kategoria baxua) ³
T10	Industria ekoizpeneko zereginak (kategoria baxua) ⁴
T11	Zerbitzuetako/hirugarren sektoreko ekoizpen zereginak (kategoria baxua) ⁴
T12	Aurrez zehaztu gabeko bestelako zereginak ⁵

Atal honen azken puntuak jasotzen dira langileek beren enpresetan egiten diren prebentzio jardueretan duten parte-hartzeari buruzko hainbat galderari LBIn emandako erantzunak. Era horretara, honako hauek hartu dira kontuan: langileen kontsulta eta partaidetza mekanismoen ezarpena, prebentzioari buruz jasotako informazio maila, prebentzioaren kudeaketaren barruko prebentzio jardueretan izan den parte-hartze maila.

Atal honetan, jasotako emaitzak erakusten dituzten zenbait taula eta grafiko agertuko dira, eta gainerakoak dokumentuaren amaieran daude erantsita.

¹ ([2]): Bulegoko lanaren barruan sartzen dira bulegoko eta administrazioko zereginak (espezifikak edo dibertsifikatuak), bai eta azterketa eta programazio informatikoko zereginak edo azterlanekin zerikusia dutenak.


(3): Pertsonekiko harremanaren lanaren barruan honako zeregin hauek sartzen dira: Lana antolatu, zuzendu edo kontrolatzea; leihatilako, kutxako edo harrera guneko lana; bezeroekin edo hornitzaileekin harremanetan jartzea eskatzen duten beste lan komertzial batzuk; osasuna eta gorputz ongizatea; irakaskuntza eta kultur dinamizazioa.

(4): Ekoizpen lanaren barruan (industrian eta zerbitzuetan) honako zeregin hauek sartzen dira. Ekipamenduen instalazioa eta mantentze lana; neurketa eta probak; ekipamenduen mantentze lana, zama-lanak; automatikoak ez diren tresnak eta makinekin ondasunak ekoiztea; makina eta instalazio automatizatuak kontrolatzea; enbalatzea eta ontziratzea; garraio ekipamenduak gidatzea; baliabide naturalak ustiatzea; lokalak garbitu eta atontzea.

(5): Bestelako zereginetan zaintza jarduerak eta aurreko ataletan sartzen ez diren gainerako zereginak sartzen dira.

2.1. Lanaren antolamenduaren ondoriozko arrisku faktoreak (psikosozialak)

5 grafikoa - Lanaren antolamenduaren ondoriozko arazoak, lan edukiaren arabera. EAE-2013 (%)



Iturria: Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Lan-baldintzen Inkesta, 2013.




Grafiko horretan, eta eranskineko A1 taulan, soldatapeko langileen osasunari eragin diezaioketeen lan-baldintzekin edo faktore sozialekin zerikusia duten hainbat galderari emandako erantzunen ehunekoak azaltzen dira.

Faktore psikosozialei dagokienez, *Etengabeko kontzentrazio edo zaintza espezifiko*a edukitzea eta *Aldi berean informazio asko gordetzea* dira langileen ehuneko handienari eragiten diotenak, izan ere, langileen % 50 inguruk adierazi du eskakizun horien arabera lan egiten duela.

Etengabeko kontzentrazio edo zaintza espezifiko edukitzearen ondoriozko eskakizun psikologikoaren mende daudela dioten gizonen ehunekoa emakumeena baino pixka bat handiagoa da.

6 grafikoa - Laneko antolamenduaren ondoriozko arazoak Osasunean eta gorputz ongizatean (unibertsitate mailako titulua). EAE-2013 (%)



Iturria: Enplegu eta Gizarte Politiketako saila. Laneko Baldintzei buruzko Inkesta, 2013.

Eskakizun psikologikoak emakumezko eta gizonezko langileen aldetik berdin hartzen ez dituzten laneko edukietan jartzen badugu arreta (% 10etik gorako aldeekin), unibertsitate mailako titulua duten osasunaren eta gorputz ongizatearen alorreko langileen sektorean, emakumeek adierazten dute gizonezko lankideek baino lan-baldintza kaskarragoak dituztela. Ikuspegi desberdin hori % 10etik gorakoa da faktore psikosozialei dagokienez: *denbora nahikoa ez* beren zereginak egiteko; *informazio argirik ez* (rolaren argitasuna); *tentsio egoerak jendearekin* (eskakizun psikosozial emozionala); *aldi berean informazio asko atxikitzea gogoan* (eskakizun psikologiko kognitiboa); *laneko ordutegia eta familia eta gizarte betebeharrak gaizki edo oso gaizki bateratzea* (presentzia bikoitza).

Emakume langileek faktore psikosozialei buruz duten iritzi kaltegarriaren eta gizonezkoek dutenaren arteko alde nabarmen hori, % 10etik gorakoa, beste laneko eduki hauetan ere ikusten da (eranskinaren A.1 taula):

- Pertsonetikiko harremana dakarten lanak/merkataritza lanak (kategoria altua eta ertaina), *Etengabeko kontzentrazioa edo zaintza espezifikoa edukitzea eskatzen dutenak*.
- Industria ekoizpeneko zereginak (kategoria altua eta ertaina), *Denbora nahikoa ez* eta *Tentsio egoerak* sortzen dituzte jendearekin.
- Zerbitzueta/hirugarren sektoreko ekoizpen zereginak (kategoria altua eta ertaina), *Denbora nahikoa ez* eta *Diskriminazioa zereginen banaketan edo Mailaz igotzeko aukerari dagokionez* eragiten dituztenak.
- Bulegoko lana (kategoria baxua) *Tentsio egoerak* sortzen dituztenak jendearekin.

8 taula - Soldatapekoak eta antzekoak. Azken 12 hilabeteetan enpresan indarkeria, jazarpen edo diskriminazio egoerak jasan dituzten pertsonak. EAE 2004-2013. Talde bakoitzeko biztanleria %tan.

		2004	2009	2013
Egoeraren bat	E	2,4	2,4	3,7
	G	1,7	2,5	2,9
Indarkeria fisikoa	E	0,1	0,2	0,2
	G	0,1	0,2	0,1
Larderia	E	2,3	2,4	2,2
	G	1,0	1,8	1,8
Diskriminazio sexuala	E	0,5	0,3	0,3
	G	0,1	0,1	0,0
Jazarpen sexuala	E	0,1	0,2	0,1
	G	0,0	0,1	0,0
Mespretxu pertsonal larria	E	-	-	1,7
	G	-	-	1,3

Iturria: Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Lan-baldintzei buruzko Inkesta, 2013

Taula honetan adierazten da emakume langileen eta gizon langileen zer ehunekok adierazi duen azken 12 hilabeteetan indarkeria, jazarpen edo diskriminazio egoera jasan duela lanean, eta halaber adierazten da aldagai horiek 2004. urteaz geroztik izan duten bilakaera. Ehunekok adierazten badute ere indarkeria, jazarpen edo diskriminazio egoerek oso eragin txikia dutela lanean, arriskuko jarrera horiek goranzko joera dutela hautematen da. Emakumeek zein gizonek adierazitako arrisku egoeren artean, *Larderia eta Mespretxu pertsonal larria* jarrerak izan dira ehuneko handienaz adierazi direnak.


2.2. Lanaren karga fisikoen eta zentzumenezko kargaren ondoriozko arrisku faktoreak (arrisku ergonomikoak eta fisikoak)

2013. urteko Lan-baldintzei buruzko Inkestan (LBI), egiten duten lanaren karga fisikoei eta zentzumenezkoei buruzko galderak egin zaizkie soldatapeko langileei. Eranskinaren A2 taulan adierazten dira gai horiei buruz jasotako erantzunak, ehunekotan.

Soldatapeko langile multzo osoaren ehunekoetan ikus daitekeenez, emakumezko langileek gizonetzkoek baino eragin nabarmen handiagoa adierazi dute aldagai edo karga honetan: *Ordenagailuaren pantailari etengabe begiratzea* (emakumeen % 39,5 eta gizonen % 30,3). Gizonetzko langileek, bestalde, bi karga fisiko hauen eraginpean daudela azpimarratzen dute: *bibrazioen edo astinaldien eragina* (gizonen % 12,8 eta emakumeen % 1,9), eta bereziki *normal hitz egitea galarazten duten zaratekin* lan egin beharra (gizonen % 30,3 eta emakumeen % 9,2).

Edonola ere, denbora asko zutik igarotzea da emakume zein gizon langile ehuneko handienarentzat karga fisiko larriena. Bai gizonek bai emakumeek adierazi dute denbora asko igarotzen dutela zutik lanean (% 51,8 emakumezkoak eta % 54,8 gizonetzkoak).

7 grafikoa - Lan kargak Osasunean eta gorputz ongizatean (unibertsitate mailako titulazioa). EAE-2013 (%)




Iturria: Enplegu eta Gizarte Politiketako saila. Lan-baldintzei buruzko Inkesta, 2013.

Lan edukiaren araberako azterketan, hiru zeregin mota nabarmentzen dira modu berezian. 7. grafikoak oso ondo erakusten du osasunaren eta gorputz ongizatearen alorrean diharduten eta unibertsitate mailako titulazioa duten soldatepeko langileen zer ehunekok adierazten duen lan-karga handia jasaten duela. Lan horiek egiten dituzten emakumezkoek esaten dute gizonezkoek baino lan-baldintza nekezagoetan lan egiten dutela. Kaltegarritasunari dagokionez egindako balorazioan, gizonen eta emakumeen arteko aldea % 10etik gorakoa da 6 aldagaitan. Horietako 5 kasutan dute emakumeek balorazio txarragoa (*denbora asko zutik igarotzea, denbora asko igarotzea jarrera astunean edo neketsuan, zama astunak eramatea edo aldatzea, ahalegin fisiko handiak egitea eta denbora luzean egotea ordenagailuaren pantailari begira*).

Kasuetako batean, aldiz, ikuspegi negatibo hori handiagoa da gizonezkoentzat emakumezkoentzat baino (ikusmena behartzea).


Bestalde, industria ekoizpeneko zereginetan (kategoria altua eta ertaina) eta zerbitzuen/hirugarren sektoreko ekoizpeneko zereginetan (kategoria baxua), 4 eta 5 grafikoak hain zuzen ere, gizonezkoek emakumezkoek baino proportzio handiagoan adierazten dute baldintza neketsuagoak dituztela, modu nabarmenean gainera, karga fisikoei eta zentzumenezkoiei dagokienez.



Iturria: Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Lan-baldintzei buruzko Inkesta, 2013.

Industria ekoizpeneko gizonezko langileek (kategoria altua eta ertaina) lan-karga handiagoa dutela esaten dute, *zutik denbora luzea* igarotzen dutelako, *oinez desplazamendu luzeak edo maiz* egin behar dituztelako, *bestelako ahalegin fisiko handiak* egin behar dituztelako, *bibrazioak edo astinaldiak* jasaten dituztelako eta *normal hitz egitea galarazten duen zaratarekin* lan egiten dutelako.

9 grafikoa - Lan kargak hirugarren sektoreko ekoizpenean (kategoria baxua). EAE-2013 (%)



Iturria: Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Lan-baldintzei buruzko Inkesta, 2013.

Zerbitzuen/hirugarren sektorearen ekoizpenean diharduten gizonezko langileen kasuan, ehuneko handiagoan aipatzen diren kargak honakoak dira: *desplazamendu luzeak edo maiz* egin behar izatea, *karga pisudunak eramatea edo aldatzea*, *bestelako garrantzizko ahalegin fisikoak egitea*, *bibrazioak edo astinaldiak jasatea*, *ikusmena behartzea*, *mugimendu sekuentziak behin eta berriz errepikatzea* eta *normal hitz egitea galarazten duen zaratarekin* lan egitea.

2.3. Hainbat lan-baldintzen ondoriozko arrisku faktoreak (segurtasuneko arriskuak eta arrisku higieniko-biologikoak)

LBIIn segurtasunarekin eta arrisku higieniko-biologikoko faktoreekin zerikusia duten arriskuei buruz galdetu zaienean, inkesta egin zaien soldatapeko langileen erantzunetan (eranskinaren A3 taula), gizonetzkoek diote, emakumezkoek baino ehuneko handiagoan, lan-baldintza arriskutsuagoetan jarduten dute lanean, *infekzio arriskuan* ez beste gainerako arrisku faktoreei dagokienez. Gizonetza eta emakumetzkoen arteko alde hori % 10 baino handiagoa da inkestari erantzun dioten pertsona guztien datuei dagokienez, honako arrisku faktore hauetan: *kea arnastea, hautsa arnastea, eroritako materialek/objektuek jotzea, goietatik erortzea, deskarga elektrikoak, erredurak, makinek eragindako zauriak eta trafiko istripuak*.

Segurtasuneko arrisku faktoreak eta arrisku higieniko-biologikoen faktoreak industria eta zerbitzuak/hirugarren sektoreko ekoizpen zereginetan (eranskineko A1, A2, A3 eta A4 grafikoak) hautematen dira ehuneko handiengan. Zeregin horietan, gizonetzkoek diote emakumezkoek baino arrisku handiagoko baldintzetan lan egiten dutela.

Emakumetzko langileek gizonetzko langileek baino lan-baldintza kaskarragoetan lan egiten dutela adierazten dute, aipatutako arrisku faktore gehienak kontuan hartuta eta horietako askotan % 10etik gorako bariazioarekin, hain zuzen ere, osasunaren eta gorputz ongizatearen alorreko zereginen osatutako multzoan (eranskinaren A5 grafikoak).

2.4. Prebentzio jarduerak

9 taula - Soldatapeko langileak eta antzekoak. % Laneko Segurtasun eta Osasun Batzordearekin/Prebentzioko ordezkariak laneko edukien arabera. EAE 2000-2013.

	Emakumeak		Gizonak	
	2000	2013	2000	2013
T1Zuzendaritza	59,0	93,2	72,9	82,8
T2Irakaskuntza (goi mailako titulazioa)	30,7	63,6	30,6	77,8
T3Osasuna (goi mailako titulazioa)	63,3	79,6	69,2	92,3
T4 Bulegoa (kategoria altua eta ertaina)	47,0	65,7	60,2	71,1
T5Harremanak pertsonekin/merkataritza (kategoria altua eta ertaina)	42,1	64,0	59,7	70,4
T6Industria ekoizpena (kategoria altua eta ertaina)	58,9	75,3	67,3	81,0
T7Hirugarren sektoreko ekoizpena (kategoria altua eta ertaina)	62,3	79,0	56,4	74,5
T8Bulegoa (kategoria baxua)	49,2	60,1	66,3	64,7
T9Harremanak pertsonekin/merkataritza (kategoria baxua)	36,8	51,0	42,3	52,5
T10Industria ekoizpena (kategoria baxua)	67,2	60,0	63,9	74,3
T11Hirugarren sektoreko ekoizpena (kategoria baxua)	25,2	34,6	52,6	65,4
T12Beste zeregin batzuk	32,0	63,4	65,6	68,3
Guztira	41,6	59,3	61,5	73,7

Iturria: Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Lan-baldintzei buruzko Inkesta, 2013.

Laneko Segurtasun eta Osasun Batzordea/Prebentzioko ordezkariak dituzten soldatapeko biztanleen eta antzekoen bilakaera positiboaz gainera, datuek adierazten dute kopuruak nabarmen handiagoak direla gizonezko langileen artean. Ekoizpen jarduera gehien-gehienetan, emakumezko baino gizonezko gehiago daude adierazi dutenak zuzendaritzako jardueretan eta hirugarren mailako ekoizpenetan izan ezik (kategoria altua eta ertaina) Laneko Segurtasun eta Osasun Batzorde bat/Prebentzioko ordezkariak dituztela beren enpresan.

Azpimarratzekoa da emakumezko zein gizonezko langileen ehuneko txikiak direla adierazten dutenak prebentzioaren alorreko baliabide horiek dituztela merkataritzaren alorreko jardueretan (kategoria baxua), eta emakumezko langileen kasuan, bereziki, hirugarren sektoreko jardueretan (kategoria baxua).

10 taula - Soldatapeko biztanleak eta antzekoak. Lanpostuaren arriskuei buruz jasotako informazio maila. EAE 2000-2013 (%).


	Emakumeak		Gizonak	
	2000	2013	2000	2013
Oso ondo informatuta	20,4	28,3	25,1	33,5
Nahiko informatuta	35,7	46,8	46,6	50,1
Gutxi informatuta	10,3	10,4	10,2	10,0
Informatu gabe	11,8	4,5	9,8	2,1
Ez du arriskurik	21,7	9,9	8,3	4,3
Informaziorik gabe	0,0	0,0	0,0	0,0
Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0

Iturria: Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Lan-baldintzei buruzko Inkesta, 2013.

Emakumezko zein gizonezko langile gehienek adierazten dute laneko arriskuei buruzko nahiko informazio dutela edo oso ondo informatuta daudela. Emakumeen % 15ek eta gizonezkoen % 12k adierazten dute oso informazio gutxi dutela edo ez dutela batere informaziorik. Denboraren joanean, gora egin du nahiko informazioa dutela edo oso ondo informatuta daudela adierazten duen langileen ehunekoak.

Nabarmentzekoa da zer iritzi aldea dagoen laneko arriskuei buruz emakumezkoen eta gizonezkoen artean. Emakumezko langileen % 10en ustez, ez dute arriskurik, eta gizonezkoen % 4 baino ez dira iritzi berekoak.


10 grafikoa - Arriskuei buruzko informazio eskasa. EAE-2013 (%).



Iturria: Enplegu eta Gizarte Politiketako saila. Lan-baldintzei buruzko Inkesta 2013.

Lanean dauden arriskuei buruz informazio eskasa duela (gutxi edo batere ez) adierazten duen taldearen azterketan jarri gero arreta (laneko edukiarekin gurutzatuz), ongi ikusten da emakumezko langileen artean osasunaren alorrean dihardutenak (goi mailako titulazioa) eta merkataritzaren alorrean dihardutenak (kategoria baxua) direla eskura duten informazioari buruz gogobetetze maila gutxien dutenak; gizonen artean, berriz, hirugarren sektoreko ekoizpenean (kategoria altua eta ertaina eta kategoria baxua) eta beste sektore batzuetakoak dira gogobetetze maila txikienekoak.

11 grafikoa - Prebentzio jarduerak. EAE-2013(%).



Iturria: Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Laneko Baldintzei buruzko Inkesta, 2013.

11. grafikoko eta eranskinean erantsitako A4 taulako datuen irakurketan azpimarratu beharreko lehenengo gaia da emakumezko zein gizonezko langileen multzoak enpresen prebentzio jardueretan duen parte-hartzea hobetzeko moduko egoeran dagoela. Gizonezko langileen kasuan, multzoaren bi herenek baino gehiagok parte hartzen dute azterketa medikuetan, baina hori da kasu bakarra. Bestalde, enpresan laneko segurtasunarekin eta osasunarekin zerikusia duten jardueretan emakumezko langileek duten parte-hartzea gizonezko langileena baino txikiagoa da, modu nabarmenean gainera. Azterketa medikoak eta prestakuntza jarduerak alde batera utzita, gainerako jardueretan emakumezko langile guztien erdiak ere ez du parte hartzen.

Emakumezko langileen parte-hartzea enpresaren prebentzio jardueretan, laneko edukiei erreparatuta, txikiagoa da (% 10etik gorako aldearekin) unibertsitate mailako titulua behar duten osasunaren eta gorputz ongizatearen alorreko zereginetan, industria ekoizpeneko zereginetan (kategoria guztietan) eta zerbitzu/hirugarren sektoreko ekoizpen zereginetan (kategoria baxua) (eranskineko A6, A7, A8 eta A9 grafikoak).



EMAKUMEEN ETA GIZONEN ISTRIPU TASA LANEAN

3

3

EMAKUMEEN ETA GIZONEN ISTRIPU TASA LANEAN

3.1. Zer hartzen da lan-istriputzat?

Gizarte Segurantzako Lege Orokorraren arabera, “langile batek besteren kontura egiten duen lana dela-eta edo haren ondorioz jasaten duen gorputz lesio oro da lan-istripua”. Gaur egun, kontingentzia profesionalen ondoriozko prestazioak jasotzeko eskubidea duten emakumezko eta gizonezko langile autonomoak ere sartzen dira definizio horretan. Baita etxeko langileak ere, 1596/2011 ED onartu zenez geroztik.

Osalanek istripu tasari buruz jasotzen dituen datu estatistiko ofizialetatik ondorioztatu liteke gizonezkoek emakumezkoek baino probabilitate gehiago dutela lanean istripuak edukitzeko, baita heriotza eragin dezaketen istripuak kontuan hartuta ere.


Bereizi egin dira lanaldian izaten diren lan-istripuak eta “in itinere” gertatzen direnak. Lanaldiko istripuen barruan sartzen dira ohiko lantokian gertatuak, beste lantoki batean edo lanaren ondoriozko desplazamenduan gertatuak. “In itinere” istripuak lanera joatean edo handik itzultzean gertatzen diren istripuak dira.

Taula gisa jarri dira, halaber, baja eragin duten istripuak, eta lesioak traumatikoak eta ez-traumatikoak diren kontuan hartuta sailkatu dira. Ez-traumatikoetan sartzen dira bihotzekoak, garuneko istripuak eta baskularrak eta beste patologia ez traumatiko batzuk, eta gainerako istripuak traumatikoak dira.




3.2. Lanaldian gertatzen diren lan-istripuak

12 grafikoa - Lanaldiko lan-istripuen kopurua, jarduera sektorearen arabera, 2012-2015



Gizonezko langileen istripu kopurua emakumezkoena baino handiagoa da, sektore guztietan; alde, behintzat, gehiengoak direlako nekazaritzan, arrantzan eta abeltzaintzan, industrian eta eraikuntzan (nekazaritza, arrantza eta abeltzaintza sektoreari dagokion emakumeen lerroa eraikuntzari dagokionak estalita dago). Edonola ere, zerbitzuetan, zeinetan gehienak emakumeak diren, gizonezko langileek emakumezkoen baino istripu gehiago dituzte (12. grafikoa: lerro moreak maila altuagoa du gizonezkoengan emakumezkoenengan baino). Alde horren jatorria, maila handi batean bederen, jarduera ekonomikoaren arabera emakumezkoen eta gizonezkoen banaketan dago, izan ere, denek ez dute arrisku maila berdina. Era horretara, H-Garraioa eta biltegiatzea sailean bildutako jardueretan, zeinetan gehienak gizonezkoak diren, I-Ostalaritzako jardueretan baino istripu gehiago gertatzen dira, eta azken horietan emakumezkoak dira gehiengoak (ikusi 3. eta 12. grafikoa).

Hori bera lanaldian gertatzen diren lan-istripuen (istripuak milaka langileko) intzidentziari dagokionez (13. grafikoa) aztertuz gero, egoera guztiz bestelako gertatzen da emakumezkoen eta gizonezkoen artean, bai sektoreen istripu tasari dagokionez bai horiek duten intzidentziari dagokionez.

13 grafikoa - Lanaldian gertatutako istripuen intzidentzia indizea (milako hainbeste) jarduera sektorearen arabera, 2012-2015

Emakumezkoek gizonezkoek baino intzidentzia txikiagoa dute sektore guztietan, eta istripu tasari dagokionez ere ez dute ordena bera. Intzidentzia handieneko sektorea industria da, eta horren ondoren daude zerbitzuen sektorea eta nekazaritza, arrantza eta abeltzaintzari dagokiona; eta eraikuntzaren sektorea da, berriz, intzidentzia txikienekoa.

Bestalde, gizonezkoen artean istripu tasa handieneko sektoreak lehenengo sektorea eta eraikuntzaren sektorea dira: batean zein bestean 85 langilek baino gehiagok izan dute istripua mila langileko, 2015. urtean zehar. 60tik gorako intzidentzia du, bestalde, industriaren sektoreak, eta, azkenik, zerbitzuen sektorea dago, 40tik beherako balioekin.

Eraikuntzaren sektorea adibide gisa hartuta, horretan argi ikustean da emakumezko langileen artean sektore horixe dela intzidentzia txikienekoa, baina intzidentzia handienekoa da gizonezko langileen artean. Lehenengo begiratuan badu horrek azalpen nahiko onargarria, hain zuzen ere gizonezkoek eta emakumezkoek eraikuntzaren sektorean egiten dituzten lanak oso ondo bereizita daudela: gizonezkoek enpresaren jardura zuzenarekin lotura duten lanak egiten dituzte (indusketak, altueran egiten diren lanak, tresna ebakitzailak edo astunak erabiltzea...), emakumeak, aldiz, administrazioko zereginetan aritzen dira funtsean.


Eskema hori, zeinak berregiten duen sexuaren arabera gizartean dagoen rol banaketa, industriaren eta zerbitzuaren sektoreetan errepikatuko litzateke, baina jarduera bakoitzaren berezko ezaugarriekin; bi sektore horietan eraikuntzan baino gizonezko langile gehiago daude, eta, ere berean, aniztasun handiagokoak dira enpresen negozioei dagokionez. Era horretara, zehaztuta daude emakumezko langileei eta gizonezko langileeni dagozkien zereginak, eta, ondorioz, ez dute arrisku maila bera beren lana egiten dutenean.

Nekazaritza, arrantza eta abeltzaintzaren sektoreak azterketa berezi bat beharko luke, izan ere, berezko ezaugarriak ditu kontuan hartuta sektorearen tamaina (txikia EAEn), ekonomia jarduera mota eta aldagai soziologikoak eta araudia.

Gaur egun, langileen zereginei edo okupazioei buruzko datuen sailkapenerako erabiltzen diren irizpideak ez dira istripuen kodifikaziorako erabiltzen direnen homogeneousak. Beraz, horren ondorioz, sexuaren araberako intzidentziaren estimazioa egiteko, eta kontuan hartuta sektorearen, jardueraren eta okupazioaren aldagaiak, aurretiko lana egin behar da, eta oraindik ezin izan da halakorik egin.

Lehenengo hurbilpena izan liteke, ordea, izandako istripuen azterketa, emakumezkoen eta gizonezkoen okupazioa kontuan hartuta (ikusi 14. grafikoa).

14 grafikoa- Lanaldian istripua izandako emakumezkoak eta gizonezkoak, okupazioaren arabera (%), 2013-2015



Gizonezkoen artean, istripu gehien izan dituztenen multzoa “Industriako eta eraikuntzako gizonezko langileak” da (% 31,8, 2015. urtean), eta horren ondoren “Instalazioen eta makineriaren operadoreak eta muntatzaileak” [% 24,1, 2015ean] eta “Oinarrizko okupazioak” dituzten multzokoak izan dira [% 24,2, 2015ean]. Aitzitik, istripu gehien izan dituzten emakumezko langileak “Jatetxeetako, pertsonen arretako, babes zerbitzuko eta salmentako” taldekoak dira [% 42,9, 2015ean]. Bigarren multzoa “Oinarrizko okupazioak” taldeko emakumezko langileek osatzen dute [% 29,0, 2015ean], eta hirugarren multzoa, berriz, baina alde handiarekin, “Teknikari zientifikoak eta intelektualak” taldekoek osatzen dute [% 10,8, 2015ean].


2013 eta 2015. urteen bitartean handitu egin da “Oinarrizko okupazioak” multzoko jardueretan diharduten emakumezkoen zein gizonezkoen istripuak [% 1,2 gehiago emakumeen artean eta % 2,6 gehiago gizonezkoen artean]. Azterketa zehatzik ez badago ere, pentsatzekoa da oinarrizko okupazioak dituzten langileen istripuak ugaritzearen arrazoiak ekonomiaren goranzko fasea izan litekeela, kontratazio gehiago eragiten baitu horrek enpleguaren maila oinarrizkoenean, eta horrekin batera esperientziarik eza dago.

Sexuaren arabera antzeko istripu proportzioa duen okupazioa “Teknikariak; laguntzarako profesionalak” taldekoa da (istripua izan duten emakumeen % 3,4 eta istripua izan duten gizonen % 3,0).

Istripuen intzidentzia adinaren arabera (15. grafikoa) aztertuz gero, eredu desberdinak agertzen dira sexuaren aldagaiaren eraginpean. Gizonezkoen kasuan, 2013tik 2015era igo egin zen intzidentzia, gazteenengan izan ezik (lerro urdin argia ilunena baino “baxuagoa”). Emakumezkoen dagokienez, aitzitik, istripu tasa argi igo da gazteenen eta adinekoen artean, 54 urtetik gorakoan artean alegia (lerro arrosa gorriaren azpitik gazteenentzat eta adinakoenentzat). Edonola ere, istripuek gizonengan duten intzidentzia emakumeengan dutena baino handiagoa da, aurretik esan bezala.


Emakumezko zein gizonezko langile gazteenen artean istripu tasa handiagoa izateak lotura du esperientziarik ezarekin –maila handi batean adinarekin lotuta-, eta horrek berarekin dakar segurtasun protokoloak ez betetzea.

15 grafikoa - Lanaldian gertatutako istripuen intzidentzia indizea (milako hainbeste), adin taldearen arabera, 2013-2015




Beste alde batetik, aipatzekoa da gizonezkoen artean intzidentziaren ibilbideak behera egiten duela adinean aurrera egin ahala, eta horren aurrez aurre dago 20 eta 44 urte bitarteko emakumeek osatzen duten "harana" eta 45 eta 59 urte bitartean deskribatutako igoera, gero berriro ere behera egiteko. Istripuak adin talde handiagoetan bilduz gero, nabarmen gelditzen da zer alde dagoen adinaren arabera emakumezkoen eta gizonezkoen artean (16. grafikoa).

16 grafikoa - Lanaldian gertatutako istripuen intzidentzia indizea (milako hainbeste), adin taldearen arabera, 2013-2015



Horren azalpena izan liteke emakumezko eta gizonezko langileek betetzen dituzten zereginei dagokienez lortzen duten egokitzapen maila, batez ere 45 urtetik gora izaten dituzten aldaketa fisikoen aurrean. Aurretik aipatutako "Lan-baldintzei buruzko Inkesta-2013" agiriaren arabera, 45 eta 64 urte bitarteko gizonezko langileen % 15'8k lana aldatu nahi dutela adierazten dute, "ordutegi egokiagoa" edukitzeko, "lan arinagoa" edukitzeko edo "ordu gutxiago lan egiteko". Ehuneko hori, ordea, 10 puntu handiagoa da emakumezkoen artean (% 25,8), eta horrek adierazi dezake aldaketa aukera gutxiago daudela emakumezkoen artean. Emakumezko langilearen gaitasuna/esperientzia gainera, enpresaren tamainak ere izan dezake eragina horretan, izan ere, enpresa handiagoek okupazio aukera gehiago eskaintzen baitituzte.

Beste alde batetik, galdetu beharko litzateke 45 urtetik beherako emakumezko langileen okupazioen banaketak adinez nagusiagoak diren eredu berei jarraitzen dion. Alde nabarmenak egonez gero, "belaunaldi aldaketa" izango litzateke azterketan kontuan hartu beharreko beste aldagai bat.

17 grafikoa - Lanaldian gertatutako istripuen intzidentzia indizea (milako hainbeste), kontratu motaren arabera, 2013-2015

17. grafikoan ikus daitekeenez, 2013 eta 2015 bitartean intzidentziaren igoera orokorra izan da, kontratu mota guztiak kontuan hartuta, eta kasu guztietan handiagoa da gizonezkoen artean emakumezkoen artean baino.


“Kontratu mugagabe aldizkakoak/finkoak” dituzten langileak izan ziren 2015. urtean intzidentzia handien izan zutenak; 2013. urtean, berriz, “lanaldi osoko aldi baterako” kontratua dutenak izan ziren intzidentzia handienekoak.

2013. urtean hasitako ekonomiaren goranzko zikloaren eta lanaren arauketan izandako aldaketen ondorioz, enpresak ekoizpen premietara egokitzeak aukera dute, kontratazio malguagoaren bitartez eta, orobat, lan-kargaren aldaketaren bitartez. Horren guztiaren ondorioa izan liteke segurtasun protokoloak gutxiago betetzea arduragabekeriagatik edo horiek ez ezagutzeagatik (esperientziarik eza), eta hori islatzen da kontratu mota guztietan igo izana intzidentzia. Are gehiago, Lan-baldintzei buruzko Inkestaren arabera (LBI-2013), langileen % 23 kexu zen 2013. urtean okerrera egin zutelako lan-baldintzek, “presio psikologikoen”, “kontratuen baldintzen” eta “lan erritmoaren” ondorioz.

Edonola ere, kontratu motari dagokionez intzidentziaren bilakaeran dagoen aldea emakumezko eta gizonezko langileen artean ez dago guztiz lotua sexuaren aldagaiarekin, beste faktore batzuk ere eragiten baitute, nola diren jardura ekonomikoa eta okupazioa, aurretik aipatu bezala.


Istripuaren aurretik gertatzen den eta hura eragiten duen gertaera anormala da “desbideraketa” (18. grafikoa). Bai gizonezkoen istripuetan bai emakumezkoen artean, desbideraketa ohikoena “Mugimenduak esfortzu fisikoarekin” egitea da. Emakumeen istripuen % 32,0an horrela gertatzen da eta gizonezkoen % 27,1ean. Grafikoan ikusten denez, desbideraketen garrantziaren ordena berdina da emakumeentzat eta gizonentzat, nahiz eta aldatu egiten den horien maiztasunaren balioa (ehunekoa).

18 grafikoa - Lanaldian gertatzen diren istripuen desbideraketa, 2015.



Desbideraketarekin lotuta, eta istripuaren karakterizazioaren beste atal baten gisa, istripua nola gertatzen den hartu behar da kontuan (19. grafikoa). Kasu honetan, forma batzuen eta besteen garrantzia are gehiago bereizten da emakumeengan eta gizonezkoengan.

19 grafikoa - Lanaldian gertatzen diren istripuen forma, 2015.




Emakumezkoek "Gehiegizko esfortzuak" (istripuen % 44,4) eta "Objektu mugikor batek zapaltzea" (% 28,7) gehiago jasaten dituzte gizonezkoek baino (% 36,7 eta % 20,4, hurrenez hurren); aldiz, gizonezkoen istripuetan gehiagotan gertatzen dira "Mugitzen ari den objektuaren kontra jotzea" (% 19,4 - % 10,9) eta "Objektu ebakitzailerekin, zulatzailearekin... kontaktua" (% 11,6 - % 6,3).

Bai desbideraketak bai istripuen formak lotura dute egiten diren zereginekin eta, azken batean, gizonezko langileen eta emakumezko langileen okupazioarekin.


3.3. Istripuak “In itinere”

20 grafikoa - “In itinere” istripu kopurua, 2013-2015.



Lanaldian gertatzen diren istripuak ez bezala, “in itinere” gertatzen diren istripu gehienak emakumezko langileek jasaten dituzte (ikusi 20. grafikoa). Gizonezkoekiko aldea, 2015. urtean, 542koa izan zen. Horrez gainera, kontuan hartuta emakumezko langile gehiago dagoela gizonezkoak baino, istripuen intzidentzia handiagoa da emakumeengan gizonengan baino (21. grafikoa).

21 grafikoa - “In itinere” istripuen intzidentzia indizea (milako hainbeste), 2013-2015.



Hala eta guztiz ere, egiten den desplazamendu motak eta erabiltzen den garraioak baldintzatzen dituzte istripuen ezaugarriak. Eusko Jaurlaritzaren Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailaren “Lan-baldintzei buruzko Inkesta, 2013” laneko 4.16.b taulan biltzen denaren arabera, eta EUSTATEN “bizitza baldintzei buruzko inkesta, 2014” eta “inguruneari – familiari buruzko inkesta” galdetegietan jasotzen denaren arabera, gizonezko gehienek norberaren automobila erabiltzen dute lanetik eta lanera joateko; emakumezkoek, aldiz, garraio publikoa erabiltzen dute edo oinez joaten dira.


Ondorioz, gizonezkoek dituzten trafiko istripuen proportzioa “in itinere” gertatzen diren istripu guztiei buruz emakumezkoek dituztenena baino handiagoa da: % 59,7 eta % 39,9 hurrenez hurren, 2015ean. Era berean, desbideraketa eta istripuaren formaren ezaugarriak ez dira berdinak emakumeen eta gizonen artean (11 taula).

11 taula - “In itinere” istripuen ezaugarriak, sexuen arabera, ehunekotan, 2015

		Gizonak	Emakumeak
Desbideraketa	Makinen kontrolaren galera	%43,0	%30,6
	Pertsonak erortzea	%23,0	%37,6
Forma	Objektu mugiezin baten gainean edo haren kontra zapaltzea	%31,5	%42,0
	Mugitzen ari den objektu baten kontrako talka	%52,4	%39,5

Makinen kontrola, ibilgailuena barne, galtzen duten (istripuaren desbideraketa) eta mugitzen ari den objektu baten kontrako talka jasaten duten (istripuaren forma) gizonezko langileen proportzio handiagoak lotura du gizonezkoek automobila emakumezkoek baino gehiago erabiltzearekin. Era berean, emakumezko langileak gehiagotan erortzen dira, eta gehiagotan egiten dute talka objektu mugiezinen kontra, eta horrek berretsi egiten du oinez joaten direla batetik bestera, eta garraio publikoaren erabilera behar izaten dutela, halaber.

22 grafikoa - Trafiko istripuak "in itinere" edo ez, 2013-2015



Kopuru absolutuei begiratuta ikus liteke trafiko istripuen kopuru absolutua nahiko antzekoa dela emakumeen kasuan eta gizonen kasuan; hori bera esan dezakegu trafiko istripuen intzidentzia tasei buruz 2015. urtean (Emakumeak; 2,25 – Gizonak: 2,36); hala eta guztiz ere, gainerako in itinere istripuetan intzidentzia-tasa handiagoa da emakumeen artean (Emakumeak: 3,40 – Gizonak: 1,59).




3.4. Istripu ez-traumatikoak

23. grafikoan azaltzen da istripu ez-traumatikoen kopurua, horien larritasuna kontuan hartuta: arina (berdea), larria (gorria) eta heriotza eragin dutenak (beltza); eta sexuaren arabera: emakumezkoa (kolore lisoa) eta gizonezkoa (kolore jaspeatua).

Istripu ez-traumatikoen tasa handiagoa da gizonezkoen artean emakumezkoen artean baino, urte guztietan eta larritasun maila guztietan.

23 grafikoa - Istripu ez-traumatikoen kopurua, larritasunaren arabera, 2012-2015.





Emakumeen eta Gizonen egoera, lan-istripu tasari eta lan-gaixotasunei dagokienez

EMAKUMEZKOEN ETA GIZONEZKOEN LAN-GAIXOTASUNAK

4

4

EMAKUMEZKOEN ETA GIZONEZKOEN LAN-GAIXOTASUNAK

4.1. Zer hartzen da lan-gaixotasuntzat eta zer pertsona hartzen dira kontuan?

Gizarte Segurantzaren Lege Orokorrak era honetara definitzen du lan-gaixotasuna: «besteren kontura egindako lan baten ondorioz, eta Lege horren aplikazio eta garapen xedapenen bitartez onartutako taulan zehaztutako jardueretan, hartutako gaixotasuna, baldin eta aipatutako taula horretan lan-gaixotasun bakoitzarentzat adierazten diren osagaien edo substantzien eraginez sortu bada gaixotasuna”.

- Gaixotasuna, ez istripua.
- Aldi baterako Ezintasunetik bereizita; hau da, izan liteke bajarekin edo bajarik gabe (adib.: hipoakusia).

Legearen ikuspegitik, kontzeptu horren arabera, hiru baldintza hauek bete behar dira aldi berean:

- Besteren kontura diharduen langilea edo kontingentzia profesionaletarako kotizatzen duen autonomia (pertsona erretirodunak barne).
- 1299/2006 Errege Dekretuak onartutako lan-gaixotasunen zerrendan sartuak.
- Lan-gaixotasunen taulan gaixotasun horrekin lotzen diren eragileen eraginpean eta jarduerak egiten ari den langilea.



4.2. Lan-gaixotasunen datuak EAEn (2015)

Atal honetako datuak 2015. urteko lan-istripuei eta lan-gaixotasunei buruzko urteko txostenetik (aurrerantzean LLGG) hartuak dira; beraz, jatorrizko txostenaren taulen eta grafikoen izenburuak ez dira aldatu, ez dagokion atalean ez eranskinean.

2015. urtean lan-gaixotasunen 2.682 parte aitortu ziren (aurrerantzean LG); horietatik 159 lan-istripua edo gaixotasun arrunta zirela adierazi zen, horiek, beraz, azterketatik kanpo gelditu dira. Bidezko ez direnak baztertu ondoren, 2.523 lan-gaixotasun zenbatu ziren: 1.887 gaixotasun berriak izan ziren eta 636 gaixoberritze egoerak.

Horrez gainera, 2014. urtean baino 188 LG parte gehigo egon ziren guztira, hau da, jakinarazpen guztiak kontuan hartuta % 8ko igoera egon zen, eta % 5eko igoera lan-gaixotasun berrietan, aurreko urtekoekin konparatuz gero; gaixoberritze parteen kopurua ere handitu egin zen. Emakumeen LLGGak (% 12) gizonezkoenak baino gehiago ugaltu ziren (% 7).

LG-2 taula (partea)

	2015 urtea			2014 urtea		
	LLGG kopurua			LLGG kopurua		
	Gizonak	Emakumeak	Guztira	Gizonak	Emakumeak	Guztira
LLGG berriak						
Bajarekin	276	182	458	280	138	418
Bajarik gabe	1.082	347	1.429	1.031	356	1.387
Guztira	1.358	529	1.887	1.311	494	1.805
Gaixoberritzeak						
Bajarekin	350	186	536	298	152	450
Bajarik gabe	61	39	100	50	30	80
Guztira	411	225	636	348	182	530
LLGGak guztira						
Bajarekin	626	368	994	578	290	868
Bajarik gabe	1.143	386	1.529	1.081	386	1.467
LLGGak guztira	1.769	754	2.523	1.659	676	2.335
LI edo LG hartua	85	74	159	112	68	180
JAKINARAZITAKO PARTEAK GUZTIRA	1.854	828	2.682	1.771	744	2.515

Intzidentzia-tasaren araberako azterketa eginez gero, igoera txiki bat egon da gizonen artean intzidentzia tasen guttizkoari dagokionez, eta, alderantziz, beherakada izan zen emakumezkoen artean. Hala eta guztiz ere, baja izan diren LLGG berrien intzidentzia-tasa jaitsi egin zen gizonen artean, eta igo egin zen, ordea, emakumeen artean; bajarik gabeko LLGGen kasuan, aitzitik, alderantzizkoa gertatu zen.

LG-2 taula (parte)

	2015 urtea			2014 urtea		
	Intzidentzia i.(‰)			Intzidentzia i.(‰)		
	Gizonak	Emakumeak	Guztira	Gizonak	Emakumeak	Guztira
LLGG berriak						
Bajarekin	0,73	0,51	0,58	0,76	0,43	0,62
Bजारik gabe	2,86	0,96	1,97	2,79	1,11	1,87
Guztira	3,59	1,47	2,55	3,55	1,54	2,49

Lan-gaixotasunen prozesuak eta iraupena

Lan-gaixotasunaren prozesu batean sartzen da gizonezko edo emakumezko langile batek gaixotasun berari dagokionez dituen LG parte itxien multzoa. Itxitako parte horietako bakoitzaren laneko baja egunen pilaketa hartzen da kontuan prozesuaren iraupenerako.

LG prozesuetako bajak, 2015. urtean zehar, 33 egunekoak izan ziren batez beste. Baja egunen mediana 33 egunekoa izan zen. **Baja-egunen mediana emakumezkoen artean 36 egunekoa izan zen, eta gizonezkoen artean, berriz, 28 egunekoa.**

EP-6 taula. Bajadun LG prozesu itxien iraupena sexuen arabera, EAEn, 2014 eta 2015 urteetan

Urtea	AE egunen mediana (P50)			
		Gizonak	Emakumeak	Guztira
2014	Hasierako fasea	32	34	33
	Lehenengoz gaixoberritzea	42	42	42
	Bitan edo gehiagotan gaixoberritzea	21	26	23
	Guztiak	34	36	35
2015	Hasierako fasea	29	32	33
	Lehenengoz gaixoberritzea	34	40	36
	Bitan edo gehiagotan gaixoberritzea	14	36	21
	Guztiak	28	36	33

* Bajaren iraupena 2014 vs. 2015 (U-Mann_Whitney testa, $z=-0,77$ $p=0.44$)

* Bajaren iraupena 2015, Gizonak vs Emakumeak (U-Mann_Whitney testa, $z= -4,52$ $p=0.000$)

Gaixoberritzeetan agertzen dira aldi baterako ezintasun (AE) aldiaren iraupenari buruzko alde nagusiak. Era horretara, gizonen artean murriztu egin da baja garaia 2015. urtean, bai lehenengo gaixoberritzean bai ondorengoetan. Aldiz, jokabidea ez da antzekoa izan emakumeen baje iraupenari dagokionez. Emakumeen baja denboraren mediana lehenengo gaixoberritzean, 2015. urtean, gizonetzkoena baino handiagoa da, eta 2014. urtekoa baino pixka bat txikiagoa; baina elkarren segidako gaixoberritzeen mediana dezente handiagoa da gizonen eragiten dietena baino, eta handitu egin da, gainera, aurreko urteari buruz. Baje iraupenean gehien eragiten duen faktorea gaixotasun mota da.

Lan-gaixotasunen prozesuak, sektorearen arabera

2015. urtean, LG kasu gehien industriaren sektoreko enpresetan izan ziren, eta gehienbat gizonetako artean; aldiz, emakumei dagokionez, zerbitzuen sektoreko enpresetan izan ziren kasu gehienetan.


Edonola ere, intzidentzia-tasa altuena industriarena izan zen, bai emakumeen bai gizonetako artean. Kasu berrien % 59 industria jarduerako langile gizonetako edo emakumetako eragin ziren eta % 32 zerbitzuen sektoreko enpresei (ikus eranskineko LG-8 taula).

Lan-gaixotasunen prozesuak adinaren eta sexuaren arabera

13. irudian erakusten da zein den gaixotasunen intzidentzia-tasa adinaren eta sexuaren arabera. Intzidentzia askoz ere handiagoa da gizonengan eta, besteak beste, zaharrenen artean. Emakumezkoen artean ere, intzidentzia-tasa altuagoa izan zen adin handieneko taldean.

Aurreko urteari dagokionez, handitu egin zen gaixotasun kopurua eta intzidentzia-tasa gazteenen eta zaharrenen artean, sexu batean zein bestean. (ikusi LG-13 taula, eranskinean).

13. irudia. LG Intzidentzia tasa, adinaren eta sexuaren arabera. EAE, 2004 - 2015



Lan-gaixotasunen prozesuak, jarduera ekonomikoen arabera

LLGG gehienak gertatzen diren jarduera produktiboen profila urtero errepikatzen da, bariazioen batekin. Eranskinean LG-14 taula agertzen da, zeinetan azaltzen diren LGen intzidentzia kopurua eta indizeak, jarduera ekonomikoaren (JESN 2004) eta sexuaren arabera.

Emakumeen artean, zerbitzuen alorreko jarduerak dira kasu gehien eragiten dituztenak, eta hezkuntzaren alorreko jarduera da horietan lehena. Gizonezkoen artean, berriz, eredu aldatu egiten da, eta industria jarduerak eta eraikuntzakoak dira kasu gehien eragiten dituztenak.

Hala eta guztiz ere, intzidentzia tasei erreparatzen badiegu, LG arrisku handieneko jarduerak ez datoz guztiz bat kasu gehien izan zituzten jarduerekin. LG kasu berrien intzidentzia altuena izan zuten bost ekoizpen jarduerak honako hauek izan ziren, ordena honetan: “basogintza eta baso ustiapena” (19,4 x 1.000), “metalurgia” (13,8 x 1.000), “produktu metalikoen fabrikazioa, makineria eta ekipoak salbu” (10 x 1.000), “ibilgailu motordunen eta atoi fabrikazioa” (9,8 x 1.000) eta “material eta ekipo elektriko fabrikazioa” (8,3 x 1.000). Jarduera horiek guztiek handitu egin dute intzidentzia-tasa aurreko urteari buruz, eta % 6 eta % 3 bitarteko igoerak egon dira. Jarduera horiek dira, halaber, intzidentzia handienekoak gizonezkoen artean.

Emakumezkoen artean, zerbitzuen sektoreko jardueretan gertatzen badira ere kasu gehienak, intzidentzia-tasak handiagoak izan ziren industria jardueretan: “ibilgailu motordunen eta atoi fabrikazioa” (14,5 x 1.000), “egurraren industria” (10,8 x 1.000), “paperaren industria” (8,4 x 1.000), “produktu metalikoen fabrikazioa, makineria eta ekipoak salbu” eta “metalurgia” (7,6 x 1.000).

Beste alde batetik, emakumeek gizonezkoek baino intzidentzia-tasa handiagoa izan zuten gaixotasun infektzioen, dermatologikoen eta presioko neuropatien kasuan (karpoko kanalaren sindromea eta antzekoak). Emakumezkoen artean, honako hauek izan ziren arrisku handieneko jarduerak: a) patologia infektziosoak hirugarren adinako egoitzetan, nekazaritza-abeltzaintzako jardueretan eta osasunaren alorreko jardueretan; b) azaleko patologiak egurraren industrian, zerbitzu pertsonaletan (ileapaindegia), ibilgailuen fabrikazioan eta kautxuaren eta plastikoen industrian; c) karpoko kanalaren sindromea paperaren industrian, ibilgailuen fabrikazioan, elikagaien industrian eta plastikoen fabrikazioan.

Era berean, gizonezkoek emakumezkoek baino intzidentzia-tasa altuagoak izan zituzten tumore patologietan eta hipoakusietan. Azken horiek ohikoak izan ziren metalurgian, paperaren industrian, produktu mineralen fabrikazioan eta produktu metalikoen fabrikazioan.

Arnas aparatuko patologiek eta tendoi giharren eta atal bigunen arazoek antzeko intzidentzia-tasak izan zituzten emakumezkoen eta gizonezkoen artean, nahiz eta alde handia dagoen gertatu ziren jarduera moten arabera.

Hainbat lotura interesgarri daude nabarmentzekoak, esaterako arnas patologien intzidentzia handia “hezkuntzan” eta ahots-korden arazo kasu ugarien ondoriozkoa izatea. Bestalde, aipatzekoa da arnasketa gaixotasunen intzidentzia handia “elikaduraren industrian”, eta bertan pilatzen da 2015ean azaldutako asma kasuen proportzio handia. Nerbio periferikoen konpresioaren ondoriozko sindromeak, esate baterako karpoko tunelaren sindromea, hainbat jarduera motatan banatzen dira, hala nola “ostalaritza”, “produktu metalikoen fabrikazioa” edo “garbitasuna”.

Lan-gaixotasunen prozesuak okupazioaren arabera

Emakumeen artean, prozesu gehien izan zituzten okupazioak ostalaritzaren, zaintza pertsonalen eta saltzaileen alorreko emakumezko langileenak izan ziren, izan ere, kasuen % 26 izan ziren horietan, eta horien ondoren kualifikazio gutxiagoko okupazioak etorri ziren (kasuen % 23). Garrantzizkoa da aipatzea sortutako LGen kasuen % 18 teknikari edo profesional zientifiko gisa lan egiten duten emakumeengan gertatu zirela.

Bestalde, gizonezkoen artean, kasuen % 50 industriako eta eraikuntzako langile kalifikatuen taldean izan ziren, eta % 25 instalazioetako eta makinetako operadoreen kasuan.

LG-15 taula. LG okupazio multzoen arabera

	2015 URTEA			2014 URTEA		
OKUPAZIO MULTZOAK	Gizonak	Emakumeak	Biak	Gizonak	Emakumeak	Biak
Zuzendariak eta kudeatzaileak (enpresak eta administrazioak)	8	6	14			
Zientzia eta adimen arloetako teknikariak eta profesionalak	23	98	121	31	118	149
Laguntza emateko teknikariak eta profesionalak	46	8	54	55	7	62
Administrazioko langileak	9	14	23	11	12	23
Jatetxeetako, zerbitzu pertsonaletako, babes zerbitzuetako langileak eta saltzaileak	36	140	176	30	125	155
Lehen sektoreko langile kualifikatuak	15	4	19	10	5	15
Artisauak eta industriako eta eraikuntzako langile kualifikatuak	671	58	729	647	50	697
Instalazio eta makinetako operadoreak eta muntatzaileak	366	73	439	339	66	405
Oinarrizko lanbideak (peoiak)	184	125	309	188	111	299
Militarrak		3	3			
Guztira	1.358	529	1.887	1.311	494	1.805

Lan-gaixotasunen prozesuak, gaixotasun taldearen arabera

LLGGen banaketaren eredua, gaixotasun multzo handien arabera, ez da urteen joanean aldatzen. Kasuen % 90 eragile fisikoek eragindako gaixotasunen ondoriozkoak dira, eta gainerako % 10 beste taldeen artean banatzen dira, bariazio txikiekin urte batzuetatik besteetara.

Gaixotasunak LG kodearen arabera taldeetan sailkatuta ikus liteke horien eredua ez dela berdina emakumeetan eta gizonezkoetan. Gizonezkoen artean ohikoagoak izan ziren eragile kimikoen ondoriozkoak, arnas aparatukoak, azalekoak, tendoi-giharretako arazoak eta hipoakusiak. Emakumeen artean gizonezkoen artean baino ohikoagoak izan ziren aho kordetako arazoak (% 92 emakumeengan eta % 8 gizonengan), gaixotasun infekziosoak eta presioaren ondoriozko neuropatia periferikoak (karpo tunelaren sindromea). (ikusi eranskineko 15, 17, 18 eta 19. irudiak).

LG-21 taula. LGen intzidentzia indizea (milakotan), gaixotasun taldearen eta sexuaren arabera, EAEn, 2014 – 2015 urteak

GAIXOTASUN MULTZOA	2015 URTEA			2014 URTEA		
	Gizonak	Emakumeak	Biak	Gizonak	Emakumeak	Biak
Infekziosoak	0,026	0,044	0,035	0,154	0,056	0,104
Tumoreak	0,008		0,004	0,027	0,003	0,015
Konpresioaren ondoriozko neuropatia periferikoak	0,349	0,433	0,390	0,352	0,352	0,336
Begietako gaixotasunak	0,003		0,001	0,005	0,003	0,004
Zarataren ondoriozko hipoakusia	1,331	0,022	0,691	1,324	0,019	0,684
Arnas gaixotasunak, goiko traktuetan	0,029	0,222	0,123	0,032	0,296	0,148
Neumokoniosia	0,040		0,020	0,057		0,029
Asma eta PMB eta A arnastearen ondoriozko beste batzuk	0,032	0,014	0,023	0,027	0,012	0,019
Beste arnas gaixotasun batzuk	0,053		0,027	0,024		0,012
Azaleko gaixotasunak	0,185	0,114	0,150	0,114	0,097	0,101
Tendoi-tako gaixotasunak, gihar eta ehun konektiboaren lotuneak	1,474	0,589	1,040	1,373	0,630	0,979
Zirkulazioko eta giltzurrintako gaixotasunak	0,003	0,003	0,003	0,005		0,003
Bestelakoak (sintomak eta definitu gabeak)	0,061	0,028	0,045	0,054	0,072	0,059

Gizonen artean gaixoberritzearen ondorioz adierazi ziren 411 parteetarik, % 70 tendoien patologien eta giharren lotuneen ondoriozkoak izan ziren eta % 17 karmo tunelaren sindromeen ondorioz. Aldiz, emakumeak gutxiago gaixoberritu ziren giharren-tendoien patologien ondorioz eta errezidiba gehiago jasan zuten neuropatia periferikoen ondorioz, esate baterako karmo tunelaren sindromea (% 43).

Aipagarria da lan-minbiziaren kasu gutxi aitortu direla, eta horregatik ezin da sakoneko azterketarik egin. Hori izan liteke sortasun denboraldi luzeko gaixotasunak direnez, ez delako agerikoa lanaren eraginarekin duen lotura, eta are gutxiago kaltetutako pertsonak adina dela-eta lan merkatutik kanpo badaude.

Arrisku neurriak. Arrisku taldeak

2015. urtean LG arrisku handieneko taldeak identifikatzeko helburuarekin, lau faktore nagusi hauen bitartez lortu ziren intzidentzia-tasaren arrazoiak: lurraldea eta enpresaren jarduera sektorea, langilearen sexua eta adina.

Faktore horietako bakoitzaren intzidentziaren arrazoiak beste faktoreen arabera dira, eta horrek adierazten du zer eragin duen faktore horrek LGaren intzidentzian, beste faktoreak alde batera utzita. Doikuntzarako Poisson eredu baten bitartez modelizatu dira zereginak.

Eranskineko 21. irudian azaltzen da zein diren LG intzidentzia doituak azken sei urteetan aztertutako lau faktoreetako bakoitzarentzat.

Sexuaren arabera aldeei dagozkien grafikoan ikusten den moduan, LG arriskua gizonengan, gainerako faktoreek doituak, emakumezkoena baino 1,3 bider handiagoa izan da; baina alde hori murriztu egin da 2014. urteaz geroztik. Hau da, LG bat edukitzeko arriskua azken sei urteetan ez da askoz ere handiagoa gizonen artean emakumezkoen artean baino, nahiz eta zertxobait gehiago igo bazen 2012 eta 2013. urteetan, arindu egin zen 2014 eta 2015. urteetan.

Hala ere, aurretik erakutsitako LG-2 taulan, gizon/emakume intzidentzia indizeen arrazoiak bikoitza baino gehiago zen, eta horrek erakusten zuen arriskua gizonengan benetan zena baino askoz ere handiagoa zela, nahastuta baitzegoen beste faktoreen ondorioz.

LG arriskua adin multzoetan hurbiltzen joan da azken urteotan. Oraindik ere handiagoa da LGaren intzidentzia adinean aurrera egin ahala, baina adin talde gazteenari buruzko arrisku erlatiboa murrizten joan da. Adin eredu horretan eragina du LG gisa adierazitako hipoakusien kasuistika handiak, lan bizitzako adin handietan gertatzen baita.

Bestalde, lan baja eragiten duten patologiei dagokienez, emakumeek gizonen baino LG arrisku handiagoa izan dute, beste doikuntza faktoreak alde batera utzita (ikus eranskineko 22. irudia). Arrisku diferentzial hori murrizten joan da azken urteetan emakumezkoen artean, eta 2014. urtean berdindu egin bazen ere, 2015. urtean gizonen artean arriskuaren gainera kokatu da berriro ere. Sexuaren arabera tasa espezifikoek 2015. urtean oraindik ere gizonengan emakumeengan baino LG tasa handiagoa erakuste badute ere, horrek adierazten du aldagai nahastileen bitartez doitutako tasak (adina, jardura sektorea eta lurraldea) alderantzizatu egiten direla, eta adierazten du, halaber, bajadun LLGG berrien intzidentzia handiagoa dela emakumeengan gizonen baino.

Adinaren arabera ere aldatu da intzidentzia arrazoia. Bajadun LGaren intzidentzia ia berdindu egin da tarteko adina duten eta adin handieneko pertsonen artean. Gaixotasun guztiak (bajaduna + baja gabea) kontatzen direnean gertatzen denari buruzko aldaketa horren arrazoia da bajarik gabeko LG asko aitortzen direla 50 urtekoen eta gehiagokoen taldean, esaterako hipoakusiak. Intentsitate handiagoko patologiak kontuan hartzean, txikitu egin ziren adinaren arabera aldeak eta handitu egiten da tarteko adineko taldearen arriskua, 2014. urtean eta, maila apalagoan, 2015. urtean gertatu bezala.

Aipatzeko modukoa da sektoreen artean izan den arrisku aldaketa bost urte hauetan eta azken urtean. Industriaren arrisku handiagoa gainerako sektoreekiko murrizten joan da (eranskineko 22. irudia, 4. grafikoa). Edonola ere, joera hori aldatu eta gorantz egin zuen 2014. urtean eta moteldu egin da 2015. urtean. 2015. urtean, asko handitu zen bajadun LGren intzidentzia-tasa lehen sektorean, eraikuntzaren sektorearekin berdinduz, eta horrek sektoreen arabera ere aldatzea eragin du.

Eranskinaren LG-24 taulan, LG estimaturako tasa espezifikoak aurkezten dira, bajadunak eta baja gabeak kontuan hartuta. Kontuan hartuta LGaren guztizko intzidentzia indizea edo tasa 2015. urtean LLGG 2,55koa izan zela mila langileko, estimaturako tasa espezifikoek balio hori 4 aldiz gainditzera iristen dira talde espezifiko batzuetan.

Eranskinaren LG-25 taulan, bestalde, baja bidez bideraturako LLGGentzat estimaturako tasa espezifikoak azaltzen dira. Horiek interes handiagoa dute LG arrisku handieneko taldeak zehazten dituztelako, izan ere, horiek, askotan, ezkutaturik gelditzen dira LG kopuru orokorren atzean. Bajadun LLGGen intzidentziaren tasa gordina 0,85koa izan bazen ere mila langileko 2015. urtean, talde askotan tasa askoz ere handiagoak iritsi ziren.

Tasa handienak Gipuzkoako eta Bizkaiko lehen sektoreko tarteko adineko emakumeen (30-49 urte) eta adin handiagoko emakumeen (50 urte edo gehiago) artean izan ziren.

4.3. Lanbide Gaixotasunen Susmoen datuak EAEn, 2015ean

LLGGei buruzko 1299/2006 EDaren 5. artikuluan zehazten da Osasun Sistema Nazionaleko medikuen eta Prebentzio Zerbitzuetako medikuen funtzioa. Eta esaten da, orobat, beren jardun profesionalaren ondorioz jakingo balute badela 1. eranskinean sartutako edo 2. eranskinean jasotako gaixotasun bat, eta egongo balitz horrek jatorri profesionala duen susmoa, autonomia erkidego bakoitzean eskumena duen erakundearen bitartez jakinaraziko zaiola erakunde kudeatzaileari, eta, hala badagokio, kontingentzia profesionalen babesa bere gain hartzen duen Gizarte Segurantzaren erakunde kolaboratzaileari.

Susmoa jakinarazteko prozedura:

- Diagnostiko kliniko baieztatua.
- Susmoa jatorri profesionalari dagokionez:
 - Arriskuko jardueren zerrendaren kontsulta.
 - Diagnostikoa nahikoa da laneko gaixotasunaren jatorriaren susmoa edukitzeko (asbestosia, mesotelioma, beste neumokoniosi batzuk...).
- Nork jakinarazi dezake susmoa?
 - Prebentzio Zerbitzuko medikua.
 - Osakidetzako medikua (Lehen mailako arreta edo Espezializatua).
 - Ikuskaritza medikoa.

Laneko Gaixotasunen Susmoari (LGS) buruzko datuak EAEn, 2015. urtean

2015. urtean lan-gaixotasunen susmoaren (LGS) alorreko 584 kasu aitortu ziren guztira EAEn; horietatik % 84 gizonezkoenak izan ziren eta % 16 emakumezkoenak izan ziren.

12 taula. LGStzat jotako gaixotasunak, EAEn, 2015ean.

MOTA	Gizon	Emakume	Guztira	
Zirkulaziokoa	1	0	1	
Infekziosoak	2	6	8	
Belarria	345	5	350	%60
Azala	7	8	15	
Arnasketa	56	22	78	
Hezur-giharretakoa	46	24	70	
Tumoreak	21	2	23	
Nerbio sist. (karpo t.)	14	24	38	
Guztira	492	91	583	
	%84	%16		

Halakotzat jotako patologien artean aipatzekoak dira honako hauek (ikusi eranskineko A10 grafikoak):

- Belarriari eragiten dioten patologiak (hipoakusiak nagusiki). Aitortutako LGS guztien % 59 hartzen dute, eta aitortutako LGS kasuen % 69,97 gizonetzkoenak dira.
- Nerbio sistemakoak (karpo t.) dira emakumeen artean aitortutako LGSen % 26,37, 2015. urtean zehar (LGSen % 2,83 gizonetzkoengan, epe berean).
- Hezur-giharretakoak, emakumeengan aitortutako LGSen % 26,37 (% 9,33 gizonetzkoengan).
- Arnasketako patologiak, % 24,17 emakumezkoengan (% 11,36 gizonetzkoengan).

Aitortutako LGSen lan motaren arabera azterketan (ikusi eranskinaren A5 Taula) honako alderdi hauek azpimarratzen dira:

- Ez da ezagutzen zer zeregin mota egiten den aitorten guztien % 21ean; % 23 emakumeen artean aitortutako LGSen kasuan eta % 21 gizonetzkoen artean aitortutakoetan.
- “Ekoizpena, eraldaketa, tratamendu, biltegiatze zereginak –era guztietakoak– zehaztu gabe” emakumeen artean aitortutako LGSen % 4 hartzen dute eta gizonen artean aitortutakoak % 27.
- “Ekoizpena, eraldaketa, tratamendua –era guztietakoa–”: emakumei aitortutako LGSen % 5 eta gizoni aitortutakoak % 12.
- Taldeko ekoizpen lanen LGSek (10etik 19rako TAS) emakumezkoen LGSen % 12 hartzen dute eta gizonetzkoen LGSen % 42.
- Zerbitzuak, osasun arreta, pertsonen laguntzak emakumei eragiten dieten kasuen % 16 osatzen dute.
- Mantentze lanak, konponketa, doikuntza, puntuan jartzea % 1 emakumeen artean eta % 11 gizonetzkoen artean.
- Adimen-irakaskuntza jarduerak, prestakuntza, informazioaren tratamendua, bulegoko lanak, antolamendu eta kudeaketakoak: % 15 emakumeengan eta % 1 gizonetzkoengan.
- Lokalen, makinaren garbiketa-industrialak edo eskuzkoak: emakumei aitortutako LGSen % 12 eta gizoni aitortutako LGSen % 1.

2015ean bildutako LGS parteek ez dute zehazten eragindako pertsonak zer jarduerara sektoretan diharduten, eta lan motaren datua baino ez dugu. Kasu kopuru eskasaren ondorioz eta datua ezin dugunez eraginpean dagoen biztanleriaren datuarekin gurutatu, ezin dugu intzidentzia-tasa lortu.



ONDORIOAK ETA EZTABAIDA

ONDORIOAK ETA EZTABAIDA

Lan honetan lortutako ondorioek berretsi egiten dute aldeak daudela emakumeen eta gizonen egoeraren artean, lan-baldintzei eta horiek osasunari eragindako kalteei dagokienez.

- Lan merkatuaren bereizketa edo **segregazio horizontala** berresten da. Zerbitzuen sektoreak gizon baino emakume gehiago ditu, eta, sektore horren barruan, jarduera jakin batuetan pilatzen dira emakumeak, nola diren ostalaritza, hezkuntza, osasunaren alorreko jarduerak eta gizarte zerbitzuetakoak, beste zerbitzu batzuk eta etxeetako jarduerak, esaterako etxeko langileen enplegatzaileak. Gizonezkoak, aldiz, gehiengoa dira industria jardueretan, lehen sektorean, eraikuntzan eta zerbitzuen sektoreko adar batzuetan, esaterako garraioan eta biltegiatzean. Segregazio horrek baldintzatzen ditu gizonezko eta emakumezko langileen arriskuak, eta horrek azaltzen du, maila handi batean, zergatik ez duten emakumeek eta gizonen pertzepzio bera horien aurrean.

Emakumezko eta gizonezko langileen kopuruari dagokionez oreka gehien erakusten duten jarduera profesionalak jarduera zientifikoak eta teknikoak dira; jarduera artistikoak, aisialdikoak eta denbora pasakoak; eta administrazio publikoaren postuetako lanak.

- **Lan-baldintzei** dagokienez, emakumezkoak gehiago dira aldi baterako kontratazioetan eta –are garrantzitsuago– askoz ere handiagoa da lanaldi partzialeko emakumeen ehunekoa (% 80-% 20); horrek azaldu dezake zergatik duten emakumeek partaidetza txikiagoa prebentzioaren alorreko jardueretan. Horrez gainera, kontraturik gabeko taldearen barruan, % 73 emakumeak dira.

Emakumeek gizonen baino lanaldi partzialeko lan jardunaldi gehiago edukitzearen arrazoia lanaren banaketa sexualean bilatu liteke, baina gizonen lan erreproduktiboa beren gain maila berean ez hartzeak ere eragina du. Gizonezkoek ia bi ordu eskaintzen dizkiete laneko eta prestakuntzako jardueri eta aisiari, eta emakumezkoek, berriz, etxeko lanetarako eta zaintza lanetarako baliatzen dute denbora hori.

- **Lan arriskuekiko esposizioari** dagokionez, zehaztu beharra dago lan honetan egindako azterketa langileen pertzepzioari buruzko datuetan oinarritzen dela, hain zuzen ere, haien ustez dituzten arriskuak, baina ez esposizioari buruzko datu errealean, oraingoz ez baitago horrelako daturik. Bestalde, feminismoaren esparruan edo berdintasun politikatik abiatuta hainbat ikerketa ildo daude adierazten dutenak emakumeen eta gizonen pertzepzioari dagokionez dagoen aldea gure gizartearen rolen osaerak baldintzatuta dagoela.

Arriskuen pertzepzioari buruzko datuak koherenteak dira emakumeek eta gizonen egiten dituzten jardueren lotutako lan-baldintzekin. Era horretara, gizonezkoek adierazten dute segurtasunaren eta higienaren alorreko arriskuekiko esposizio handiagoa dutela, arrisku horiek lotuta baitaude gizon gehienek beren jarduera egiten duten esparruaren berezko lan-baldintzekin: zarata, dardarak, keekiko esposizioa, hautsa... Emakumeek, berriz, egiten dituzten zereginetatik eratorritako arriskuen mende ikusten dute beren burua, hau da lotura handiagoa dute hartu beharreko jarrerekin, zama fisikoarekin eta mentalarekin.

- 
- Lanaren antolamenduaren ondoriozko **arrisku psikosozialeko faktoreekiko** esposizioari buruz antzeko pertzepzioa dute emakumeek eta gizonek, nahiz eta aldeak dauden laneko edukiaren azterketan sakonduz gero. Osasunaren sektorean (goi mailako titulazioa), esate baterako, emakumeek argi eta garbi hautematen dute arrisku psikosozialeko esposizioa dutela, gizonek baino gehiago, eta alderantziz geratzen da hirugarren sektoreko jardueran (kategoria altua eta ertaina).

Emakumeek beren enpresan indarkeria, jazarpen eta diskriminazio arriskuekiko esposizioari buruz duten pertzepzioaren gaineko datuek ez dute azalpen zabalagoa ondorioztatzeko aukera ematen. Hala eta guztiz ere, beharrezkoa izango litzateke ikerketa ildo berri bati ekitea, pertzepzioan ez ezik arrisku horien errealitatea aztertuko lukeena, arreta berezia jarriz sexu jazarpenean edo jazarpen sexistan.

Egin beharreko galdera izango litzateke ea arrisku psikosozialeko esposizio handiagoa duten, arrisku horiek nagusi diren sektoreetan lan egiten dutelako, halako eran non jarduera horietan diharduten gizonek esposizio bera edukiko luketen, hau da, esposizio datuak (horiei buruz esan dugu aurretik ere ez dugula gaur egun halakorik) eta kalteen indizeak konparatu beharko lirateke.

Beste alde batetik, arrisku psikosozialak zerbitzueta jardueretan nagusi izatea ez litzateke egia absolututzat hartu behar, jakin baita arrisku psikosozialak ez direla ebaluatzen ari, ez behintzat Osalanek egindako kanpainetan, eta are gutxiago segurtasunaren alorreko arriskuak edo arrisku higienikoak oso handiak diren sektoreetan, eraikuntzan esate baterako. Ez dago daturik, beraz, langileek jarduera horietan arrisku horiekiko duten esposizioari buruz; edonola ere, azken horietan hautematen da esposizioa handia dela eta gizonezko langileak direla esposizio maila handiena dutenak, lan merkatuaren bereizketa horizontalaren ondorioz. Azken batean, sakondu beharreko ikerketa alorra da hori, inondik ere.

- **Laneko kargen** ondorioz hautemandako esposizioa asko aldatzen da edukien arabera, halako eran non hautemandako esposizioa handiagoa den osasunaren sektoreetan eta pertsonetikiko harremanak/merkataritza harremanak dituzten sektoreetan diharduten emakumeengan, eta, aldiz, arriskuaren pertzepzio handiagoa dagoen kategoria baxuagoko industria ekoizpenean edo hirugarren sektorean diharduten gizonezkoengan.
- **Segurtasun arriskuei eta arrisku higieniko-biologikoei buruz** hautemandako esposizioa, datuen arabera, handiagoa da gizonezkoengan emakumezkoengan baino, osasunaren alorreko zereginetan (goi mailako titulazioa) izan ezik.

Beraz, ondorioztatu liteke arriskuekiko sumatutako esposizioa baldintzatuta dagoela emakumeek eta gizonek hainbat sektore eta jardueratan duten banaketagatik; pertzepzioa eta banaketa, aldi berean, generoen eraikuntza eta sozializazio desberdinaren ondoriozkoak dira.

Azpimarratu behar da, halaber, ez dugula **esposizioari buruzko datu objektiborik**, eta pertzepzioetan oinarritzen garela. Horrez gainera, bigarren mailako iturrietan oinarritzen garenez, onartu behar dugu horiek mugak izan ditzaketela genero ikuspegiari buruzko diseinuari dagokionez.

Beste lan ildo bat izango litzateke, beraz, arriskuekiko esposizioari eta lan-baldintzei buruzko informazio iturriak bilatzea, eta generoaren ikuspegia duten neurketa tresnak diseinatzea.

- Emakumezko zein gizonezko langileak helburu diren **prebentzio jarduerai** dagokienez, itxura denez emakumeek estaldura txikiagoa dute beren segurtasuna eta osasuna bermatzeko helburua duten baliabideak eta neurriak direla eta.

Era horretara, txikiagoa da Segurtasun eta Osasun Batzordearen bitartez edo prebentzioko ordezkariaren bitartez ordezkariak duten emakumeen ehunekoa, nahiz eta egoera hori gehiago egotz diezaiokeen beren zerbitzuak eskaintzen dituzten enpresen tamainari eta tipologiari. Ostalaritzako eta beste zerbitzuetako jardueretan, esate baterako, zeinetan ugariagoak diren emakumeak, prebentzioaren alorrari lotutako langileen berariazko ordezkariak egiturak edukitzeko joera txikiagoa dute. Beraz, hainbat aldagai daude argazkia “distorsionatu” dezaketenak, eta Lan-baldintzei buruzko Inkestan hartu beharko lirateke kontuan (aurretik ere aipatu da inkesta horiei etekin handiagoa ateratu beharko litzaiekeela).

Deigarria da emakumeak eta gizonak ez direla iritzi berekoak beren lanaren arriskurik eza dela eta (10 eta 4). Hori horrela izatearen arrazoia honakoa izan liteke, hain zuzen ere, emakumezko langileen iritzi segurtasun arriskuak –berehalakoak direlako– edo arrisku higienikoak –eragiten dituzten ondorengatik– baino ez direla hartzen osasunerako arriskutsutzat, eta gihar-hezurretan dituzten osasun arazoak edo orainaldian dituzten edo etorkizunean izango dituzten gorabehera psikosozialak ez dituztela beren lan-baldintzekin lotzen. Arriskuaren pertzepzio txikiagoa edukitzeak zerikusia eduki lezake emakumezkoek prebentzioari lotutako alderdiei buruz gizonezkoek baino informazio gutxiago edukitzearekin jarduera adar gehienetan (hirugarren sektore jarduerak salbu, kategoria altuetan eta ertainetan).

- **Lan-istripuei** dagokienez, datu estatistikoetatik ondorioztatzen da gizonezkoek probabilitate handiagoa dutela lanean istripuak edukitzeko, heriotza eragin dezaketen istripuak barne..

Intzidentzia-indizeak aztertuta, emakumeentzat indize horiek sektore guztietan txikiagoak direla ikusten da. Edonola ere, emakumezkoen eta gizonezkoen intzidentzia-indizeen arteko aldeak garrantzizkoak badira ere eraikuntzan (5,5-89,4, 2015. urtean), nekazaritzan (13,9-89,4) eta industrian (26,9-68,2), ez dago horrenbesteko desberdintasunik zerbitzuen sektorean (19,1-36,4).

Desberdintasun horietarako azalpen bat izan liteke lan merkatuaren bereizketa horizontala, zeinaren ondorioz gizonezkoak segurtasun arrisku handieneko jardueretan pilatzen diren. Emakumezkoek eta gizonezkoek istripu gehiago zer okupaziotan duten aztertzean egiaztatzen da teoria hori. Emakumeek istripu gehien dituzten lanbideak, istripuen ia erdia, “Jatetxeetako, zerbitzu pertsonaletako, babes zerbitzuetako langileak eta zaintzaileak” dira (% 42, 2015ean), eta horien ondotik “Oinarritzako lanbideak” (% 29,0). Gizonen kasuan, berriz, istripuen banaketa orekatuago dago hiru lanbide nagusien artean: “Industriako eta eraikuntzako langileak” (% 31,8), eta ondoren, “Instalazio eta makinetako operadoreak eta muntatzaileak” (% 24,1) eta “Oinarritzako lanbideak” dituzten langileak (% 24,2).

Era berean, gizonezkoek arrisku jokabideak emakumezkoek baino maila handiagoan hartzen dituztela dion teoriak –besteak beste Luis Boninok² eta Emakunde³ erakundeak proposatua-- azalduko luke zergatik diren handiagoak gizonezko langileen ezbehar tasak.

Deigarria da, bestalde, emakumeen eta gizonen istripu tasak hurbildu egiten direla adin handieneko tarteetan, eta 65 urteko eta gehiagoko tartean ia-ia berdinak direla (edo, zenbaitetan, emakumeen tasak gizonezkoenak baino handiagoak dira 2013. urtean). Horretarako azalpena izan liteke emakumeek aukera gutxiago dutela lanpostua aldatzeko aukera, aldez enpresen tamainaren ondorioz, izan ere, enpresa handiagoek lanbide aukera gehiago eskaintzen dituzte. Aipatu behar da, halaber, lanbide feminizatuetan, erretiro aurreratu gutxi daudela eta lanbide horiek ez direla lan nekagarritzat hartzen.

Istripuen zergatiari eta istripua edukitzeko formari dagokionez, aldeak daude emakumeen eta gizonen artean, baina ez dira hain nabarmenak. Gizonezkoek zein emakumezkoek “Esfortzu fisikoarekin egindako mugimendu” ezohikoen ondorioz izaten dituzte istripuak, baina aldeak daude istripuak edukitzeko moduari dagokionez, izan ere, emakumezkoen kasuan gehiegizko esfortzuak dira nagusi (% 44,4), eta gizonezkoen kasuan, berriz, banatuago dago, gehiegizko esfortzuak, objektu mugiezinen gaineko zapaltzeak, mugitzen ari diren objektuen kontrako talkak eta kontaktua objektu ebakitzailarekin, zulatzailearekin...

“In itinere” istripuetan eredu desberdina dago emakumezkoen eta gizonezkoen artean, eta intzidentzia handiagoa da emakumezko langileen artean, gizonezko langileekin alderatuta (5,7 – 4,0, 2015ean), baina antzekoa da zirkulazio istripuei dagokienez, eta handiagoa bestelako istripuen kasuan, hau da, oinez edo garraio publikoan sortutako kasuan.

² <http://www.luisbonino.com/pdf/MASCULINIDAD%20y%20sist%20sanitario.pdf>

³ http://www.aulaviolenciadegeneroenlocal.es/consejos Escolares/archivos/P_013 los hombres la igualdad.pdf

Istripu ez-traumatikoei dagokienez, istripu-tasa handiagoa da gizonen artean, adin tarte guztietan eta larritasun maila guztietan.

Edonola ere, hainbat gogoeta egin behar dira, eskura ditugun kopuruaren azterketaz gainera:

- Hainbat istripu tipologia daude normalean aitortzen ez direnak, eta, hortaz, gertatze indizea oso txikia da; era horretakoak dira, esate baterako, faktore psikosozialen ondoriozko istripuak edo in itinere istripuak.
- Era berean, zenbait jarduera sektoretan susmoa dago istripu gutxiegi aitortzen direla, hala nola, lehen sektoreko jardueretan (nekazaritza-abeltzaintza), etxeko lanetan...
- Zailtasunak daude intzidentzia indizeak sexuaren arabera eta sektorearen, jardueraren eta lanbidearen aldagaiak erantsita kalkulatzeko, ez dagoelako homogeneotasunik langileen lanbideen sailkapenaren eta istripuen kodifikazioan aplikatzen den sailkapenaren artean.
- Istripu parteei buruz jasotako informazioa ez da oso zehatza izaten, eta ez eragile guztiak datoz guztiz bat istripuen larritasunaren kalifikaziorako erabiltzen diren irizpideei dagokionez.

